

Piarres Lafitte Aintzinan

(Piarres Laffite in Aintzina)

Hernández Mata, Amelia
Eusko Ikaskuntza
María Díaz de Haro, 11-1.
48013 Bilbo

BIBLID [1137-4454 (1997), 15; 31-60]

Piarres Lafitteri asko kezkatzen zioten gazteen arazoek. Problema hauei irtenbidea bilatzeko eztabaida erreztuko zuketzen mugimenduak sortu zituen: Eskualzaleak, Menditarrak eta Begiraleak, baita argitalpen bat kaleratu, Aintzina, heuren eritziak agertzeko. Lafittek Aintzinan idatzi zuen, baina izengoiti ezberdinez sinatuz. Hala ere, zenbaki guztien ale baten markatu zituen berak idatzitako artikulu guztiak eta horrela ezagutu ahal izan dugu Piarres Lafitte izan zela gehien idatzi zuena eta aldizkariaren pentsabidearen funtsa osatzen zuela.

Giltz-Hitzak: Euskalzaletasuna. Erregionalismoa. Pertsonalismoa.

A Piarres Lafitte le preocupaban los problemas de los jóvenes. Con el fin de ofrecerles ayuda creó Lafitte diferentes grupos: Eskualzaleak, Menditarrak y Begiraleak, así como una revista, Aintzina, de modo que pudieran publicar sus ideas y reflexiones. Piarres Lafitte escribió en dicha revista y firmó con diferentes seudónimos, si bien marcó en uno de los ejemplares de todos los números los artículos por él escritos. De esta manera hemos podido saber que la mayoría fue escrita por él y que su modo de pensar constituía la base del ideario de la revista Aintzina.

Palabras Clave: Vasquismo. Regionalismo. Personalismo.

Piarres Lafitte était très préoccupé par les problèmes de la jeunesse. Pour leur offrir un moyen de les solutionner il crea des groupes: Eskualzaleak, Menditarrak et Begiraleak, et une revue aussi, Aintzina, où ils publiaient leur opinions. Pierre Lafitte écrivit et signa sous différents pseudonymes, mais dans ses notes il signala aussi les articles qu'il avait écrits. C'est comme ça que nous avons pu savoir que c'était à lui la majorité des articles et que les opinions de Piarres Lafitte constituaient le fond de la pensée de la revue Aintzina.

Mots Clés: Basquisme. Régionalisme. Personnalisme.

Aintzina. Trait d'union mensuel des Régionalistes basques-françaises Piarres Lafittek¹ eta gazte talde batek 1934ko urrian kaleratutako hilabetekaria izan zen, 1937ko iraila arte iraun zuena. Tarte bat egin zuten 1937ko apirilaren eta irailaren artean, heuren esandakoaren arabera, arazo ekonomiak eraginda.

Lafitten lehenengo asmoa mugimendu erregionalista bat sortzea izan zen, 30ko hamarkadan Iparraldean nagusia zen politika zentralistaren ondoan aukera berri bat osatuz. 'Eskualzaleak' izena hartu zuen eta *Eskual-herriaren alde*² liburuxkan eman zituen aditzera xedeak. Propaganda bezala orduko egunkarietan –*Le Courier de Bayonne* eta *La Presse du Sud-Ouest*, egunkari eskuindarrak biak– aurkeztu zituzten egitarau horren ideia batzuk, baina argitaratzeko oztopoak aurkitu zituzten, separatistatzat hartu baitzituzten³. Hori ikusirik taldearen pentsakera isladatuko lukeen aldizkaria sortzea erabaki zuen Lafittek eta *Aintzina* atera zuen⁴. Dargains inprimatzaile donibandarrarekin jarri zen ados eta Lafittek aurreraturik zuen diruarekin argitalpen berriari hasiera eman zion.

"Ordre Nouveau" eta "Esprit" talde pertsonalistekin harremanetan egon ziren eskualzaleak eta pertsonalismoan oinarritu ziren ere: "Ni individualisme, ni collectivisme, ni libéralisme, ni étatsisme, mais personnalisme, voilà la position du vrai chrétien"⁵, zioen Lafittek. Herri europarren federakuntzari buruz hitz egiten zuten, nazio guztien independentzia zaintzearen helburuarekin, nahiz eta gaur egungo Europa kontzeptua oraindik ez erabili.

Piarres Lafittek baldintza batekin eman zion hasiera mugimenduari eta aldizkariari: ez zuten menpekotasunik izan nahi⁶, ez beste egunkariekiko, horren froga izanik *Le Courier-en*

1. Piarres Lafitte Luhuson jaio zen, 1901ko maiatzaren 21an. Oso gaztea zela aita eta ama galdu zituen; izeko baten etxean gizondu zen, non bearnesa ikasi zuen. Larresoroko Apeztegi Txikian behar beste urteak eman ostean Baionako Apeztegi Handian sartu zen, hogeit urterekin. Bertan Jean Saint-Pierre irakasleak eraginda euskalzaletasuna piztu zitzaion eta euskera ikasteari ekin zion. 1924an apeztegi eta gero Tolosara bialdu zuten; Pierre Lhande ezagutu zuen eta berarekin adiskidetu. 1926an Uztaritza bidali zuten; bertan Mgr. Mathieuk Harrieten liburutegi txikiak arduratzea proposatu zitzaion. Pierre Aranartekin batera Lhandek hasitako hiztegiari jarraipena eman zion. Hainbat aldizkarietan idatzi zuen gramatikaz eta etnografiak, baita filosofo eta kazetari moduan ere: *Le Carillon de Jeunes*, *Eskualduna*, *La Presse du Sud-Ouest*, *Gure Herria*, *L'Ordre Nouveau*, *Aintzina*, *San Frantses Terziaren Hilabetekaria*, *Bulletin de la Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne*, *Herria*, *Euzgo Gogoa*, *Gernika*, *Gure Almanaka*, *Ikuska*, *Revue Internationale des Etudes Basques*, etab.

2. *Eskual-herriaren alde*, *Euskal-herri-zaleen chedeak baitezpadako chehetasun batzuez laburzki argituak*. La Presse, Baiona, 1933

3. Jacques Mestelanek aditzera eman digunaren arabera "c'était un programme à l'époque; on ne pouvait pas parler de nationalisme, bien entendu, on était obligé de dire régionalisme"; separatismoa ideia buruan zeukaten eskualerrizaleek, baina garaiko zentralistazaleek mesfidantzaz ikusten zituzten heuren ekintzak eta ezinezkoa zen separatismoa eta nazionalitatea kontzeptuak aipatu ere egin.

Jacques Mestelanek ere: "Le gouvernement de la France ne se préoccupait pas beaucoup d'*Aintzina*; peut être que la police, les renseignements généraux s'en occupaient. D'autant plus que le député, c'était Ibarnegaray, et Ibarnegaray disait: 'oui, oui, il y a quelques excités qui parlent de régionalisme, mais ce n'est rien.... La police nous surveillait, c'est sûr, mais on ne peut pas dire qu'elle nous empêchait d'écrire ce qu'on voulait'"

4. "Zer nahi den, gure ideoen berri, gure cheden berri jakiteko, jendeak behar zuen kazeta berezi bat irakurri. Segur kazeta onak badira bazterretan, eta adixkideak baditugu agerkari gehienetan, partikulazki *Gure Herria* eta *Eskualduna*; baina senditzen dugu ez ditezela osoki junta gure politikari, zeren ez duten ontsa ezagutzen, eta aireko choriaren menturan ez baitute eskukoia utzi nahi. Hemendik edo handik laguntza pochi bat ekhartzen daukute halerre, -eskerrak baitiozkagute-; ez ordean aski gure ezagut-arazteko", "Zertako", *Aintzina*, 1934ko urria.

5. Demetrius: "Le chrétien ne saurait être unitariste", *Aintzina*, 1937ko otsaila

6. Jacques Mestelan: "Oui, ça alors, c'était, tout à fait, la position de l'abbé Lafitte. Il voulait conserver son indépendance comme il l'a fait, lui, personnellement, il a conservé son indépendance de pensée.... Alors, effectivement, c'était une revue qui préconisait Jaïnkoa, c'est sûr, mais il ne voulait pas... à l'Eglise. D'autant plus que l'église officielle à ce moment là n'était pas tellement favorable à nos idées. Vous savez l'église était très conservatrice aussi, et elle était plutôt... elle rejoignait plutôt le parti conservateur que le parti de l'autre côté."

eta *La Presse*-n zentsurarengandik aldendu nahia, ezta elizarekiko –*Eskualduna*⁷ eta *Gure Herria*⁸ argitalpenekin gertatzen zen bezala–, *Aintzina*ren erlijiotasuna artikuluko guztiei baze-rien ere.

Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, ezin dugu esan *Aintzina* erabat aldizkari berriz- tatzalea izan zenik, denbora hartan ezinezkoa baitzen, alde batetik, eta bestetik isolaturik suertatzen den mugimendurik ez dagoelako; oster, historia frantziarraren hildoan agertu ziren eskualzaleak: gudulari ohien mentalitatearen aztarnak susmatzen ziren heurenengan, tra- dizioen pisua, etab.

Badakigu aintzasuna zegoela *Aintzina*-n idazten zutenen artean, pentsakeraren aldetik –bazeuden eskuindarrak, *démocrate populaire* joerakoak, zentristak, etab–, baina bat egiten zuten guztiek regionalismoari zegokionez⁹. Artikulu honen helburua da Lafittek hilabetekariaren agertutako pentsamoldea azaltzea, bera izan baitzen sustatzaile nagusia; horretarako Lafitten aldizkariaren bildumara jo dugu, P.L.-z oharatarazi baitzuen zeintzuk ziren berak izki- raturiko artikulua¹⁰.

Regionalismoa

Lafittek kaleratutako hilabetekariaren izenak –*Aintzina. Trait d'union Mensuel des régio- nalistes basques-française*– adierazten zuen zein zen funtsezko helburua, hau da, erregiona- listen aldizkaria izatea. Lehenengo zenbakian “Le balai” artikuluan (“que chacun balaie son

7. *Eskualduna* astekari elizkoi xuria Baionan argitaratu zen. 1887an Louis Etcheverryk sortu zuen *Eskualduna*, 5. zenbakitik *Eskualduna* grafia berriarekin agertzeko. 1904an Eskualdun ona deitu zuten eta 1908an *Eskualduna* izenaz kaleratu zuten berriro. Bost zuzendari izan zuen: Arnaud Pochelou (1887-1905), Jean Hiriart-Urruty (1905-1915), Jean-Blaise Adéma (1918-1925), Domingo Soubelet (1930-1937) eta Xalbat Arotçarena (1937-1944). Munduko biga- rren Gerra amaitu ostean *Eskualduna* aldizkaria itxi zuten alemaniazalea izan zelakoan.

8. *Gure Herria* (1921-1936, 1950), Louis Dassance zuzendaritzapean kaleratutako hilabetekari kulturala izan zen.

9. Horrela hasi zen Lafittek 1935ko artikulua bat: “Jaun batek, galdera igortzen dauku noren alde giren, Erregearen ala Errepublikaren. Erran gabe doa, hemen lanean ari giren gehienek gure ideia badugula gauza horri buruz; baina, egia den bezala aithortzeko, ez gira denak gustu bereko eta nahiago dugu deus trenkatu gabe bertze asko chehetasu- nez mintzatu”; eta horrela amaitzen zuen artikulua hori: “Bainan ez gira aski azkar mundu guzian lanean hartzeko. Gure chokoan Eskual-herrian nahi dugu garbitasun gehiago egin, Jainkoaren eta arbasoen legeri bermatuz. Hortan denak adoch gira. Ez dea hori bera ere aski?”, Behingoa, “Errege ala Errepublika”, *Aintzina*, 1935ko uztaila.

Jacques Mestelan: “dans *Aintzina* il y avait de gens de gauche et de droite et du centre, c’est sûr. Par exemple, l’abbé Lassalle, qui écrit News Politic, lui il était plut tôt de droite, tout à fait de droite; alors, au contraire, on était plus tôt de la tendance, en ensemble, nous étions de la tendance démocrate populaire, et on était aussi de la tendance du Parti Nationaliste Basque Etienne Salaberry, je ne sais pas, il était ni à gauche ni à droite, il était plut tôt centriste.... (Lafitteri buruz) Maurras zalea? Ce n’est pas vrai, non, non, non, on a dit, certains ont dit qu’il était Maurras zalea mais c’est faux; il n’a jamais été maurrasien, par contre, il a été démocrate”.

Piarres Xarritonek: “l’Action Française eskuina zen, Maurras eta hoiek ziren. Aldiz de la Brière, Yves de la Brière eta hoiek, beste hoiek, demokratak ziren, hoiek ziren sionisten ildotik ibiliak, Marc Sarnier eta bide hortatik ibiliak, horiek demokrazia kristianaren ildotik eta gero hoiek aurkituko dute bide artean Emmanuele Mounier, Sprit eta Ordre Nouveau, talde hortan ziren Daniel Rops eta gero Alexandre Marc, Alexandre Marc eta Suizako federalista hura, eta liburu bat bazuen eta nik orduan hemeretzi nituela eman zidana Lafittek...” “La révolution nécessaire”, Alexandre Marc, Dandieu eta Aron... horiek idatzitako liburu bat, nire ustez izugarrizko garrantzia izan du ene pentsaeran”.

10. Pierre Xarritonek Lafitte ikusi zuen egun baten bere bulegoan artikulua markatzen. Pierre Andiazabali esker, Lafitten ikasle izandakoa eta irakaslearen artxiboa antolatu duena, anotazio horiek kontsultatu ahal izan dugu.

Aldizkariaren zenbaki guztiak Lazkao abadetxearen liburutegian erabili ahal izan dugu, Juan Jose Agirrerri esker. Eta, nola ez, denbora hartako lekuoei eskerrak eman nahi diegu ere eskeinikito azalpenengaitik: Pierre Xarriton, Marc Legasse, Xabier Diharce, Beñat Mendisko, Jacques Mestelan eta Simon Duhour.

devant-de-porte, et toute la rue sera propre"¹¹ esaerari aipamena eginez) erregionalismoaren beharra aurkeztu zuen, esanez herriak osotasunean aurrera egiteko lehenengo eta behin eskualdeetako arazoei irtenbidea bilatu behar zitzaiela, amankomunezko irtenbideak baliogabeak baitziren banako akatsak konpontzeko. Artikulu honetan erregionalismoa proposatzeaz gain, familia hartu zuen gizartearen oinarri bezala, baita gazteria aipatu ere aurrerapausu guzti horien eragiletzat. Beraz, aldizkariaren lehenengo zenbaki honetan Lafittek aurkeztu zituen jadanik eskualzaleen euskarri garrantzitsuenak: familia eta gazteria.

1935ko martxoaren alean "Le Bloc Régionaliste"¹² artikuluan erregionalisten jarreraren berri eman zuen. Herrialdeetako erakundeek harreman estuak izango zituzten sorterriarekin eta bertoko herritarrek, hizkuntza, ohiturak eta erlijioa heuren ekintzetako gunea izango ziren. Hala eta guztiz ere, aberriarenganako sentipen honek ez zituen baztertu behar inguruko lurraldeak, erregionalismo kristau batek ezin baitzuen itxia izan, kanpokoari irekita egon baizik, 'albokoa maitatzen norberaren burua maitatzen zen bezala' lemari jarraituz, zioten eskualzaleek (haien ustez "le Régionalisme, en soi, n'a rien de spécifiquement catholique, mais le catholicisme s'en accommode très bien"¹³). Herri guztiek antzeko kalteak jasaten zituzten bezala Estatuarengandik, komenigarritzat jotzen zuten guztiak bil zitezen zentralismoaren berdintze prozesuari aurre egiteko.

Hala ere, *Aintzinako*ak fedehauskorrek baino ez ziren Maurrasen¹⁴ jarraitzaile batzuren aburuz. Eskualzaleek giristino iraun nahi zuten, baina helburu erregionalistak baztertu barik; zioten euskalerriak zein katolikoak zirela, maila berdinean, baina ez zutela arlo biak nahastu nahi. *Action Catholique*-ren antolakuntza erlijiosoa aipatzen zuten, zeini bizitza luzea izan zezan desiratzen zioten, "mais nous pouvons affirmer que la plupart d'entre nous sont décidés à travailler dans les rangs de cette organisation religieuse, à titre individuel et en collaboration des croyants d'opinion politique différente"¹⁵. Esaten zuten Lafittek heuren pentsabidea printzipio giristinoetan oinarritzen zela moralaren eta praktikaren aldetik –"notre formule ne ment pas: Jainkoa eta Lege-Zaharra"¹⁶–, baina ekintza erregionalistetan sarturik zeuden ere eta horrek "réalise partiellement et à sa manière des oeuvres dont la première –ekintza katolikoak– ne saurait se changer sans dépasser les buts proposés par le Pape"¹⁷. Beraz, Jainkozaleak bazi- ren eta erregionalistak ere bai, baina arlo biak nahastu barik, heuren esanetan.

1935ko martxoaren alean¹⁸ aurreko hilabetean burututako hitzaldi baten berri eman zuen Lafittek. Pétain mariskala buru izanik, Ziegel ingeniariak Frantziako industriaren kontzentrazioaz hitz egin zuen, esanez ekialdean eta Pariseko ingurumenean pilaturik egoteak kalte moral, sozial, ekonomiko eta militarrek sortarazten zituela gainontzeko lurralde frantziarretan. Ziegelen esanetan, industriaren deszentralizazioa onuragarria litzateke industriarentzat zein Frantzia berarentzat. Pétainen hitzek agertu zituen jarraian, zeinek Ziegelekin adostasuna agertzearekin batera industria leku gutxi batzutan bildurik egotearen arrisku militarra iragarri

11. "Le balai", *Aintzina*, 1934ko urria.

12. N.A.: "Le Bloc Régionaliste", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

13. "Pourquoi je suis devenu Euzkualerriste", *Aintzina*, 1935ko otsaila.

14. Charles Maurras (1868-1952) *L'Action Française* aldizkaria sortu zuen; bere pentsakera tradizioaren eta erlijioaren aldekoa zen.

15. "Distinctions nécessaires", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.

16. Ibidem.

17. Ibidem.

18. "Vive Pétain ou la décentralisation des industries", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

zuen, aire-defentsari zegokionez batez ere. Pétainek berak Ganbaran aurkezturiko honi buruzko lege proiektua aipatzen zuen, parlamentarien artean, ostera, geldokeria zela nagusi arlo horretan. Amaitzen zen artikulua eskualerrizaleen izenean hitz eginez, esanez eskualzaleak anti-frantziartzat hartuak izaten baziren ere, kontsolagarria zela Pétain mareskalak, frantziarra zena argi eta garbi Lafitten esanetan, eskualzaleen eritziekin bat etortzea¹⁹.

1935ko maiatzaren alean Estatuaren aurrean indarra lortzen joateko taktika bat agertu zuen Lafittek²⁰. Esaten zuen Estatuaren egitekoa zela talde politiko edota profesionalen lana eta ahaleginak koordinatzea guztien onura bilatzearen; talde horien aldetik lanik ezta ahaleginik ez balego Estatuak ez luke zertan ezer koordinatu. Frantziaren berrantolaketa beharrezkoa zela ikusten zuen Lafittek, horretarako ezinbestekoa zela herriaren aldetik organuak sortzea, deszentralizazioari begira egongo zirenak; herritarrek sorturiko organuak ofiziozkoak izango lirateke hasieran, Estatuak egokiak zirela ikustean ofizialki onartuko lituzkela azkenean. Taktika honek, beraz, ohitura sortzen zuen, gero lege bihurtzeko. Taktika berbera proposatu zuen emakumeen botuari zegokionez, legeak onartzen ez zuena; Lafittek bozkatzeko gomendatzen zien emakumeei, hautagaiak aurkezteko eta kontseilari pribatuak aukeratzeko, zeinek herri-arazoen berri emango zieten kontseilari ofizialei. Ohitura hau hedatuko zen, baita derrigorrezko bihurtu apur bat beranduago. Horrela, ekimen pribatuaren bidez Estatuaren aurrean sendotuz joango ziren euskal lurraldeak.

Erregionalismozaleak izan arren ez zuten independentziarako pausuak emateko asmorik. Badakigu gobernu frantziarrean ideia agertzea ere ezinezkoa zatekeela, baina *Aintzina*koek beste arrazoi batzuk agertu zituzten, separatistatzat hartzen zituztenei eskualzaleen jarrera argitzearen. "Mise au point"²¹ artikuluan Estatu euskaldun independentientearen ezintasuna agertu zuen Lafittek, posibilitateak sor zitzakeen beldurrak baretu nahiean, berak zioen bezala. *Aintzina*koek ezin zuten susmatu Euskal Herria Frantziatik eta Espainiatik bereizirik, lehenengo eta behin Iparraldekoentzat hondamendi ekonomikoa lekarkeelako; bestetik, euskaldunak mendikate batek banandurik egotea independentziarako eragozpen geografiko litzatekelako. Bazeuden eskualzaleak antirregionalistatzat hartzen zituztenak; horiei Lafittek leporatzen zien jatorrizko lurraldeen ordeztatu Gobernu frantziarrak ezarritako departamentuak nagusitu nahi izatea, herrien nortasunen suntsidura ekarriko zuena. Amaitzen zuen esaten Frantziako edo Espainiako biztanleak zirela, baina euskaldunak, atzerrikoen aurrean frantziarrak edo espainiarrak ziren era berean.

Hala ere, nazionalismo okerra izatea leporatu zieten²² eskualzaleei, "lehenengo Frantzia" leinari ez baitzioten jarraitzen. Lafitten ustez talde salatzaile horiek, heuren burua frantziartzat zutenak, azpikeriaz aritzeaz gain, gaztedia maneatzen zuten funts-gabeko mistizismoaz.

19. Artikulo honetan agertutako Pétainen aldeotasunaz Jacques Mestelani galdetu genion: "les anciens combattants c'était Pétain, maréchal Pétain; ils avaient grande confiance en lui; donc, ce qu'il disait n'était pas faux, donc il fallait suivre ce qu'il disait, et les autres étaient, ce qui n'était pas d'accord avec ça c'était gens considéré mal... Je ne me rapelle pas. Mais ça serait, peut être, quand il était ambassadeur à Madrid, ça remonte à ce moment là; et alors, justement c'est, peut être, un article, je ne me rappelle pas de cet article, cet article qui avait été fait par un conservateur, justement, que nous avons comme rédacteur dans le journal; c'est bien possible, sur tout que, j'ai dit, c'était d'anciens combattants... Donc, alors, c'est possible, oui, ça ce n'est pas de la même façon... ambassadeur, quand même, de la République et ce de l'Etat française, après la capitulation et patroné par les allemands ce n'est pas la même chose".

20. Le Réaliste: "Comment s'y prendre", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

21. "Mise au point", *Aintzina*, 1935ko apirila.

22. "Euzkadi über alles", *Aintzina*, 1935ko abuztua.

Beste batzuek alemaniazaleak izatea esan zieten²³, baina Lafittek erantzun zien heuren lema "Jainkoa eta lege zaharra" zela, printzipio hori ez zutenek –zela Croix du Feu²⁴, zela Jeunesse patriote, zela Démocrate populaire²⁵– traizioa egiten ari ziotela ordenuari, gorriei jarraitzen ari baitzieten; eta heurretari batzuk komunismoari aurre egiten bazioten ere, Lafittek esaten zien: "il ne fait qu'opposer un désordre tricolore à un désordre rouge"²⁶.

Ekonomia

Lafittek garaiko egoera ekonomikoa aztertu zuen aldizkarian. Nagusia zen krisi ekonomikoa. "Deux sources de la Crise. L'or et l'argent"²⁷ izenburupean pentsamoldearen krisia aurkeztu zuen krisi ekonomikoaren eragile nagusitzat. Monetari-sistema gaitzestu zuen, esanez merkatal-informazioa itxuraldatzen zuela, segurtasunik eza eta finantzaferak erakarriz: Batetik, bi metal erabiltzea, urrea eta dirua, merkatal-balioa adierazteko ez zuen egokia ikusten; diruaren eta errearen balioen artean erlazio bat ezartzen zen alde zurretik eta gero balio biek gora edo behera egiten zuten egunero, batere armoniarik gabe, meategietako explotazioen arabera edo munduko merkatuek baldintzaturik, enpresariak noiz errearen gainean, noiz diruarenean espekulatzen zuten bitartean. Bestetik, urrea eta dirua gramotan neurtzeak nahastea handitzen zuen, ez baitzeturten bat salgaien diruz neurtzeko erarekin.

Honekin batera, *Aintzinak* finantz-azpikeriei aurre egingo ziela baieztatu zuen Lafittek "Dirua Jainko" artikuluan, Gobernuaren eta legearen babespean burutzen ziren diru lapurketak salatuz. Irakurleei aholkua ematen zien dirua jainko faltsu ez bihurtzeko, bai ugazabei, zeinek ondasuna gizentzen zuten langileei soldata murriztuz, baita langileei ere, lansaria gehitzearen batzen zirenak nagusiaren kontra. Bankueteetakoek zuzendu zitzaizen esanez bidezkoa zela dirua mailegutan uztea, interes bat jasotzeko, edo dirua txeketan ematea, "bainan berme gabeko txeka baten ematea ohointza da"²⁸, zioen artikuluan.

Finantz-azpikeriak aipatu ditugula, 1935ko azaroaren artikuluan baten Lafittek Staviskyren aferaren²⁹ inguruan Parisen egiten ari zen auziaren berri eman zuen³⁰. Salatuen azalpen bakarra zen ez zekitela heuren nagusia hain gaitztoa zenik eta polizia, epaileak eta Gobernua aipatzen zituzten engainatzaileen artean. Azaltzen zuen Lafittek ulergarria zela, zeren eta

23. 1935ko "Euzkadi über alles" artikulua izenburua alemanieraz idatzi zuten eta jarraitzen zuten gero: "Ça y est, pensera le Monsieur bien renseigné. *Aintzina* ne se contente plus de prendre ses idées en Allemagne. Il va jusqu'à emprunter la langue de Hitler pour nous dire sans restriction aucun: 'Le Pays Basque au-dessus de tout'. -Eh! bien non, cher Monsieur: la devise n'est pas à nous, et nous n'en voulons pas", "Euzkadi über alles", *Aintzina*, 1935ko abuztua.

24. Croix-de-Feu 1929an sorturiko gudarari ohien elkartea izan zen. François de la Rocque coronela lehendakari ordea izen zen: "La ligue conserve de ses origines la forte empreinte de l'esprit combattant: exaltation des sacrifices consentis à la patrie, antiparlementarisme affiché, volonté d'unir, au-dessus de tous les partis, l'ensemble des Français. L'appel à cette unité nationale, qui reproduirait la formidable cohésion de l'effort de guerre, est une constante du mouvement", Borne, D.: *Dictionnaire historique...*, 247 or.

25. Parti démocrate populaire (PDP) Frantziako lehenengo partidu demokrata kristaua izan zen, 1924tik 1944 arte iraun zuena. Jarraitzaileen artean katolizismo sozialaren ezkertiarak zituen, alde batetik, eta bestetik, Marc Sangnierrek eta 'Jeune République'ri jarraitu nahi ez zieten demokrata kristauak.

26. "Euzkadi über alles", *Aintzina*, 1935ko abuztua.

27. Junior: "Deux sources de la crise. L'or et l'argent", *Aintzina*, 1934ko urria.

28. Triki-Traka: "Oro trompaturik", *Aintzina*, 1934ko azaroa.

29. Stavisky afera 1934ko otsailaren 6ko errebolturen eragile nagusietarikoa izan zen. Stavinsky Ukrainiako abenturaria zen. "Crédit Municipal de Bayonne" sortu zuen, non bonoak kaleratu zituen, baina zegozkien dirua baino milioi batzuk gehiagotatik; bonuen dirua jasotzerakoan ezinezkoa zela ikustean, azpikeria begi bistan geratu zen.

Staviskyk alde baitzituen ministroak eta, bestetik, Gobernuak ateratako lege bat ere bere azpikerietan lagundu baino ez zuen egiten. Bere ustez: "Oraiko auzi huntan nausiak kanpo dira eta aithor dugu harrigarriko eskandala zaikula. Baina ez litake eskandala ttipiagi, estakuru hortan, bigarren mailek hobendunak libro igortzen balituzte, muthilak churi churiak atheratzen balire... Juek ez dituzte akusatuak hautatu. Gaztiga ditzatela eskupean dauzkaten hoik lehenik. Gero bertzen aldi, parada heldu denean"³¹.

"Syndicalisme Basque"³² berrian euskaldunek betidanik elkartzeko ohitura frogatu nahi zuen Lafittek, anarkistak zirelaren salaketaren kontra; frogak bezala: erligio katolikoari zuten atxekimendua –atxikimendu honen ezaugarria taldekoitasuna zela, zioen; lapurditarren betidanik izan zituzten amankomunezko ondasunak –aintzineko lapurtarrak komunistak zirela esatera helduz, baina hori gehiagi esatea zen Lafitten aburuz–; zuberotarren lurraldeen 4/5-a komunala izatea; kirol, kofrade, sindikatu eta kontrabando taldeen ugaltzea, etab.. Horrez gain, 40.000 langile giristinoek "Solidarité des Travailleurs basques" sortu zuten eta beste 10.000 Confédération Internationale d'Utrech-i loturik zeuden –bigarren hau aurrekoarekin harremanetan zegoena–. Beraz, jarraitzen zuen, bazegoen 50.000 euskaldun sindikatuak, Suizan, Hungarian, Yugoslavian, Txekoslovakian eta Luxenburgon baino gehiago, eta proporzionalki Frantzia, Espainia, Alemanian eta Belgikan baino gehiago, guzti hori agertzeko euskaldunak ez zirela elkarteen kontra.

Sindikatuaren gaiaz adore ematen zien gazteei esanez ez zegoela dana egiteke. 1920 arte ezer gutxi egin bazen ere, mutualitateak aspaldidanik ziharduten. Gomendioa ematen zien nekazaritzaren sindikalismoan ordurarte egindako aurrepausuei jarraitzeko, ezerezetik sortu beharrean, hasierako hutsak ez errepikatzearen. Esaten zuen Lafittek.

Sindikatuok benetazko euskaldunen eskuetan zeudela, politikoki ezberdinak zirela baina katolikoak; ezaugarri ezin hobeak gazteek, jacistek³³ edo euskaldunek, heuren jarraitzaileak izan zitezten. Amaizten zuen Lafittek: "Telles sont les idées qu'un vieux syndicaliste basque et chrétien se permet d'offrir aux lecteurs d'Aintzina, en vue d'éclairer un débat latent, soulevé par quelques articles hardis et généreux certes, mais peut-être trop théoriques.... c'est peut-être l'évolution qui est la meilleure forme de révolution"³⁴.

Legeen egokitasunaz hitz egin zuen berriro Lafittek 1935ko urriko alean esanez³⁵ lurraldeak gobernatzea ez zela erreza, legeok ez baitziren beharretara moldatzen eta arazoak estali baino ez zuten egiten. Derrigorrezkotzat jotzen zuen Lafittek zuzentasuna arau lezaken batengana jotzea, mundu honetako abantailatan interes gutxi lukeen batengana eta hemengo arazoak kanpotik begiratu litzuzkena, zioen. Frantchech de Vitoria³⁶ proposatu zuen, XVI. mendeko teologo euskalduna, esanez honek esandakoari jaramon egin ezker Europak ez lukela hainbeste problemarik izango.

Turismoa Iparaldeko ekonomiaren euskarri garrantzitsuenetarikoa zen, baina eskualazei beldur ematen zitzairen ekartzen zituzten berrikuntzengaitik. Honi buruz hauxe izan zen

30. Stavisky-tarrak", *Aintzina*, 1935ko azaroa.

31. Ibidem.

32. Elgarkaria: "Syndicalisme Basque", *Aintzina*, 1934ko urria.

33. Jacistek JAC Jeunesse agricole chrétienne osatzen zuten.

34. F. Hargaray: "Tout n'est pas à faire", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

35. Santsin: "Bazinakitena?", *Aintzina*, 1935ko azaroa.

36. Francisco de Vitoria (Gazteiz edo Burgos 1480- Salamanca 1546). Nazioarteko zuzenbidearen sortzaileetarikoa izan zen, natur-zuzenbidean oinarrituz.

Lafittek *Aintzina*n agertu zuen eritzia: "Badakigu behar dutela norapeit joan beren udaren iragiteko; eta gutarrerat ethorritz diru pochi bat ekhartzen dutela gure herrialderat. Ez gare arrotzen etsai. Josta ditezela, ibil harat eta hunat, mintza anglesez, alemanez, nahi duten bezala. Ez gare arrotzen etsai. Errespetatzen ditugu heien ohidura bereziak, heien mintzaireak, heien ideiak. Bainan... bainan... Ordainez ez gaitzatela ofentsa! Ordainez ez ditela gutartean ibil nehun ibili nahi ez litezken plantan: erdi biluzirik edo okastagarriko maneretan..."³⁷.

1936ko ekainaren alean³⁸ nekazariak produkzioaren prosezuan kaltetun handienak zirela zioen Lafitek. Langileek, burututako grebek eta manifestazioek lagundurik, hobekuntza handiak lortu bazituzten ere Blumengandik –jornalen igoera, 40 orduko lanastea, oporrak–, laborariak fartzak horren kaltetunak baino ez ziren, zeren eta ugazabek, hobekuntzekin lan prosezua kariatzen zela, igoko baitzituzten laborariak erosi behar zituzten gaien prezioak. Blumek holakorik ez zela gertatuko zioen, Gobernuak ordainduko zuela lege berriek produkzio prozezura erakarritako kariatze hori, esaten baitzuen Blumek kaltegarria litzaketela industriari itxi zitzaizkion. Baina Lafitte kezkatu agertzen zen, ziur baitzegoen langileek lortutako hobekuntzak euki ez zezan, nekazarien zergak gora egingo zirela.

Langilegoari zegokionez 1936an gatazka ugari egon ziren: Langileak lantegiez jabetu ziren Blumen politikari kontra egiteko. *Aintzina*n sarritan hitz egin zuten jarrera horren egokitasunaz eta lantegiak libratzeko Gobernuak neurriak hartzearen ala ez hartzearen beharraz. Lafittek arazoa aurkeztu zuen aldizkarian elkarriketa baten bidez langilea, zurutu nahiean: "Joan den egunean mintzo ginen lana hausten duten langileez. Erraiten ginuz ez zukeela Gobernuak onetsi behar, langilea lantegiez jabe dadin... Eta adichkideak ihardesten zaurkuntza/-Zer nahi duzu egitea?/-Soldadoak igorri behar litazke lantegien libratzerat/-Aisea mintzo zara, zu: bainan norbaiten gaztigatzeko, norbait hura hobendun behar litake izan. Langilea, egungo egunean, ez da hobendun. Ez daki zer ari den. Kontzientzia makhurtu diote ttiki-ttikitik eskolan eta kazetetan. Uste du zer-nahiren egiterat libro dela. Zer gaztigu nahi diozu ba eman? Hobendun egiazkoak populuaren enganatzaila eta buruzagiak dira. Ez oraindik baitezpada, bainan orain artinokoak. Ez dute nahi izan Jainko-legerik, eta huna nun ondorioak ageri diren!"³⁹.

Politika

*Aintzina*n iraun zuen denboraldian Albert Lebrun zegoen Errepublikaren lehendakari bezala eta gabinetearen buru moduan: Doumergue 1934ko azaro arte, Flandin 1935ko maiatz arte, Laval 1936ko urtarril arte. 1936ko maiatzean Front Populairak irabazi zituen bozketak legislatiboak eta Léon Blum lehendakari izateko aukeratu.

Aintzina zela medio orduko gertaerak irakurleei agertzen zizkien; artikulua izenorde ezberdinez sinaturik Gobernuaren ekintzei kontra egiten zien Lafittek.

1934ko abenduan senatu-bozketak burutu ziren Behe Pirineo departamentuan bi senatore aukeratu behar baitzituzten, Catalognen eta Barthelemy⁴⁰ ordezkoak. Aipatu hilabete

37. *Aintzina*: "Itsas-baxterrak garbi", *Aintzina*, 1935ko uztaila.

38. "Gaicho laboraria!", *Aintzina*, 1936ko ekaina.

39. Pettan: "Gaizki egilea, hobon gabea izanik ere, ez da gaizki egiterat utzi behar", *Aintzina*, 1936ko ekaina.

40. Barthelemy hila izan zen Marseillan 1934ko urriaren 9an Yugoslaviako erregearekin batera, honen kontra prestatutako atentatu baten. Louis Barthelemy atzerriko ministro izan aritu zen Doumergueren gabinetean, baita Flandinengan, honek aldatu zuen arte. Barthelemy Frantziaren desarmeari kontra agertu zen, Alemania nazistaren arma

ateratako alean⁴¹ hauteskudetara aurkezturikoen izenak adierazi zituen Lafittek: Hirigoyen, Moutet, Boué Bertrue, Achiary, Verdier eta Lillaz, irabazi ez zutenak, eta Lissar eta Champetier de Ribes garaile suertatu zirenak. Bérardek, Ibarnegaryk⁴² eta Lillazek Lissarekin osotu zuten zerrenda; garaile ez suertatzeaz poztuko zen *Aintzina*koa.

1935ko martxoaren alean Lissaren ordezkoa –senatore bilakatu baitzen aukeratzeko hauteskunderen emaitzak aurkeztu zituen⁴³. De Coral suertatu zen garaile Donibane Lohitzuneko eskualdean. Onena bazen ere erdaldunen artean, kezkatu agertzen zen Lafitte deputatu euskaldunik inoiz aukeraturik ez izateagaitik, eta espero zuen de Corralek euskeraren alde jokatu zuela, nahiz eta egitarauan agertu ez. Beste hautagai batzuren berri ere eman zuen: De l'Espée, gizon bitxitzat hartzen zuena, gaiztoa ez izan arren; Moreau, lauetarik giristinoena, baina zuhurtzirik gabekoa; Moine, komunista, euskera irakaskuntzan sartzearen aldekoa eta soldaduzka herritik hurbil egitea proposatzen zuena. De Coralek irabaztearekin baikor agertzen zen, zeren eta arlo batzuetan Gobernuari burujabetza eskatzeko asmoa agertu baitzuen, hala nola eskolarena, posta, burdinbide, telefono, irrti, asurantzia eta abarrena.

1935ko martxoan Flandin gabinetearen lehendakaria zen, maiatz arte iraun baitzen. Lafittek ez zuen Flandin gustokoa, baina ez zuen hobekuntzarik espero hurrengo hauteskundeetan irabaziko luketenekin. Martxoaren *Aintzina* Austriaseko iraultzaile sozialistek kalera-tutako agiri bat aurkeztu ostean, non ondasunen jabetza pribatuaren desagerpenaz hitz egiten zen, Lafittek zioen gauza bera gertatzera zihoazela Frantzian “quand le Front Commun se sentira assez fort pour nous donner une nouvelle édition revue et augmentée de l'épouvantable drame de Austries”⁴⁴. Hain zuzen ere, Front Commun-koek 1935ko maiatzeko bozketak irabazi zituzten eta Laval lehendakaritza aratu. Gabineteko berriarekin egoera ekonomikoa are txarragoa izango litzatekeela aurreikusten zuen Lafittek; hobekuntza ekonomiko eta sozialarako pausuak agertu nahi izan zuen *Aintzina*⁴⁵: batetik, diruak, helburu bihurtzearen ordeztuak, trukaketarako tresna izatearen errola berreskuratu beharko luke; bestetik, Estatuak edo boteredunek ondasunen jabetza pribaturako eskubideari eutsi beharko liokete, gizasemeen eskubidea baitzen Lafitteren aburuz.

Maiatzean burutuko ziren bozketetarako honako gomendio hau eman zien irakurleei: “gizon argitu, zuzen eta erneak hauta ditzagun. Argiz mintzo garenean, ez dugu baitezpada liburuetako argia aipatu nahi. Eskolan bildu jakitateak badu onik bainan egun guzietako harat hunatek emaiten duten zuhurtzia biziki hobe da. Biak balimbadi, agur!. Gauzak nola diren, nola erabil ditazkeen jakitea bada zerbait. Bainan frikun batek zer nahi makhur eginen dautzu, hain jakintsun balinbada”⁴⁶. Beraz, hautagaia gizon zintzoa eta zuzena izateaz gain eguneroko arazoei aurre egiteko gai izan beharko litzakete, baina praktikak ematen zuten trebetasuna zela medio eta ez asko ikasia izateak zekarren ezagueraz. Hauteskunderen emai-

mentua ikusirik. Ekialdearekiko hitzarmena bultzatu zuen, Rumania, Checoslovaquia, Polonia eta Soviet Batasunarekiko. Marseilleko atentatua gertatzean Berthoin Segurtasuneko zuzendaria zen Jacques Catalogne 1934ko urriaren 6an hil zen.

41. “Elections”, *Aintzina*, 1934ko abendua.

42. Lafitte eta Ibarnegarayren arteko harremanei zegokienez, hauxe esan digu Jacques Mestelanek: “il avait, pas de la haine, mais, enfin, il avait quand même de l'hostilité pour l'abbé Lafitte, il ne l'aimait pas beaucoup; il faut dire que l'abbé Lafitte ne le menait pas non plus; bon, alors, “ce petit abbé”, il l'appelait aussi “le poisson rouge dans le bénitiers”.

43. “Bozak ondoan”, *Aintzina*, 1935ko martxoa.

44. Elgarlari: “Lisez-moi-ça”, *Aintzina*, 1935ko martxoa.

45. Ibidem.

46. “Herriko Gizonak”, *Aintzina*, 1935ko apirila.

tzak ikusten hasi zirenean, aitzitik, Lafitte ez zen pozik agertu: "Han edo hemen, kontseilari-gai batzuen azpi-jokoak gaitu harritu eta okhaztatu. Damurik aithortu behar dugu zozialistak gure eskualdetan nausitzen ari direla"⁴⁷.

Pierre Lavalek berria osatu zuenean liberaren babesa bilatu zuen legedekretuen bidez, deflakzioa azken punturaino eramanez Marcel Réginiere finantz ministrariaren bidez. Dekretuon gaitzezenak ugariak izan ziren. 1935ko abustuaren alean Lafittek esan zuen: "Ez zen beste sendagailurik Frantzia errekarat zeraman gaitzaren garbitzeko. Etche batean, zorrak handitzearekin, gastuak tipitten ari dituzte. Hala-hala egindu gobernuak: pentsioneak, jornalak, laguntzak, denak ttipitu ditu"⁴⁸. Laneko ministrariak buruturiko Assurances sociales-en murriztapenari buruz zera esan zuen: "Laneko ministroak argaldu nahi ditu Assurances sociales direlakoak, eskualdeka emanez. Hasteko, Frantzia hamabortz herrialde-tan zathikatu gogo du eta bakhotchari emanen diozka Parisen orai arte ziren bezalako bule-goak, eskubide edo zuzen ber-berekin. Nahiz Frossard zozialista den, onhartzen dugu haren chedea. Haatik Eskual-herriak ez baitu zathikatze hortan bere onbide osoa ukhanen, espe-rantza dugu, ondoko urthetan lege berria osatuko dutela"⁴⁹.

Ekaineko zenbakian⁵⁰ kazetek bozketetan zuten eragina aztertu zuen. Lafitten aburuz egunkariek eragina zuten hautesleengan, baina ez jendeak uste zuen beste. Esaterako, jarraitzen zuen, Tolosan *La Dépêche* eta *Le Midi* irakurtzen zituzten, *La Dépêche* saltzen zenaren erdia ere ez zela saltzen *Le Midi* kazeta zozialista; hala ere zozialistak nagusitu ziren azkenengo hauteskundeetan Tolosan. Montpellierren *L'Eclair* erregetiarra irakurtzen zutela, bertako kontseilu baino gorriagorik ez zegoen. Baionan Garaten egunkari gutxi saltzen zen, bai oster *Le Courier* eta *La Presse* kazeta zuriak; hala ere bozketen arabera zuri gutxi zegoen Baionan. Aipatu kasu hauek bereziak izan litezke; kazetek eragina bazutela hauteskunde-en emaitzetan. Lafitten esanetan, egin beharrekoa zen hautesleak aurretik elkartu eta dudak argitu; hau da, bozketetarako prestatu. Ezkertiarren garapenerako gakoa hori zen eta eskual-zaleek ere ez lukete taktika hori baztertu behar.

Lavalen gabinetea ligen aldekoa zen eta hauekin batera Italiako faxismozalea⁵¹. Deflakzioari eta faxismoari aurre egiteko Comité national de Rassemblement populaire –Front populaire⁵² izena ofiziala– sortu zen 1935ko uztaillean, ezkertiar eta extreme-gauche guz-tiak batu nahiz Errepublika babesteko. 1935ko uztailaren 14an Rassemblement populairek greba handiak antolatu zituen, komunisten, zozialisten eta erradikalen batasuna agertu nahiaz, Daladier heuren bat eginik. 1935ko abenduaren alean Lafittek agertu zuenaren ara-bera, Front Populaire-koak Errepublika salbatu nahiean zebiltzaten eta eskuindarrak beste hainbeste. Ibarnegarayk ezkertiar eta eskuindarren arteko tirabirak desagertaraztearren bakea eskeini zion Blum ezkertiarren buruari, baita lege bat proposatu, "gudari buruz munta-

47. "Zathozte", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

48. L.B. "Garizuma berria", *Aintzina* 1935ko abuztua.

49. "Argal-argal", *Aintzina*, 1935ko azaroa.

50. "Kazeta eta bozketa", Ibartarra: "Mouda berri", *Aintzina*, 1935ko ekaina.

51. "tous les milieux de tradition républicaine s'inquiétaient de voir la démocratie menacée par les ligues antiparlementaires; celles-ci cherchaient à instituer en France un régime imité du fascisme italien et du national-socialisme allemand; on pouvait craindre, depuis la formation du ministère Laval, qu'elles n'eussent complicités au sein même du gouvernement", Goguel, op. cit., 504 or.

52. Front populaire osatzen zuten lau partidu politikoak: PCF, SFIO, Parti radical-socialiste eta Union socialista républicaine; bi sindikatu: CGT eta CGTU; lau mugimendu: Ligue des droits de l'homme, Mouvement Amsterdam-Pleyel, Comité de vigilances des intellectuels antifascistes eta Mouvement d'action combattante.

tu diran biltzar guzien barreatzeko”⁵³. Baina Laffitek etsipenez ikusi zuen Blumek eskualdeetako biltzarrak ezereztan nahikoa izan baitzuen, ezkertiarren liga mazoizaleak zeuden moduan utziz.

1936ko martxoan hauteskunde legislatiboak ospatzera zihoan berriro Frantziako gobernu. 1936ko otsailaren alean bozketa horietara Euskal Herrian nortzuk aurkeztuko ziren eta eskualerrizaleek nori eman behar zioten botua agertu zuen⁵⁴ Lafittek. Nafarroa Beherarako Ibarnegaray, zuen hitz jarioari esker etsarik ezagutzen ez zuena. Baionako lehenengo barrutirako Delzangles proposatu zuen, beste bozketetan aurkezturikoa jadanik eta noren aurrean ezer gutxi egin ahal lukela Corcos erradikal sozialistak (Garatek izan zuen arrakasta ez zuen izango Corcosek Lafitten ustez). Hala ere ez zegoen oso ziur Delzanglesen jarrera politikoaz, azkenengo hauteskundeetan bere kandidaturak oztopatu baitzuen eskuindarrak; bestetik, ez zekien zer pentsatzen zuen lege laikoez. Lafitten aburuz “Nous continuons à demander ce qu’est un radical indépendant. Le radicalisme, à notre avis, c’est une doctrine nationaliste laïciste sans doctrine sociale définie. Nous distinguons cette position du radical-socialisme qui accepte le socialisme dans le cadre national. Nous disons franchement qu’un jacobin même indépendant de toute organisation et de tout comité ne nous emballe pas”⁵⁵. *Eskualdunak* ere erreserbaz hartzen zuen erradikal independenteen jarrera. Dena dela, besterik ezean, Delzangles proposatu zuen bozketetarako. Azkenez, Baionako bigarren barrutirako deputatugai moduan de Coral aukeratu zuten, noren egitaraua eskualzaleengandik nahiko hurbil zegoen, deszentralizaziozalea baitzen, baita giristinoa ere. Hautagai honekin batera Jean de l’Espée beste deputatua ere posiblea zen, *Le Courrier de Bayonne* egunkari erregionalismozalearen zuzendaria. Lafittek zioen bezala euskaldunak ezagutzeko ahalegin handiak egin zituen de l’Espée kanpotarrak eta kazetari ona zen, baina deputatua izateko ez zen nahikoa kazetari on bat izatea, zioen. Amaitu zuen esaten de Coralen aldekoa zela eta bere ustez de l’Espée erretiratu behar zen bigarren bueltan.

1935ko irailaren *Aintzina* Etiopian hastear zegoen burrukari buruz hitz egin zuen Lafittek, esanez frantziar batzuek esaten zutela Italiako biztanle kopurua handia zela eta Etiopiakoek lekua utzi beharko zutelari italiarrei bertan bizitzeko; Lafittek bere buruari galdeztzen zion zer esango luketen frantziarrek Alemaniak lurralde frantziarrei bizitzeko lekua eskatuko balio, Frantziako biztanlegoa murrizten baitzihoan: gerra hasiko litzateke zapalduetako eskubideak berreskuratzearren. Frantziak zein Ingalaterrak gerra ez hasteko eskatzen zioten Italiari, eta italiarren erantzuna: “Ez ditutzue zuhaurek zuen koloniak lore-botaka bildu, baina tiroka. Zer ditutzue orai jestu hoik?”⁵⁶; edo bestela, Mussolinek Laval egindako eskaera Etiopiaren ordeztu Frantziak lurralderen bat eman ziezaion. Lafittek ez zuen irtenbiderik agertu arazoaren aurrean: “Alde batetik iduri luke nor bere lurren nausi behar litekela utzi eta gaizki dela lur-alde baten norbaiti ebastea. Bertze aldetik iduri luke, lurra gizonen bizitokia denaz geroz, populu batek hartze lukeela, jendea emendatzearekin, eremu zabalchgo bat. Baina nun kausi? Edo, hobek erraiteko, zer legez?”

53. *Aintzina*: “Hek eta guk”, *Aintzina*, 1935ko abendua. Agertzen zuen Lafittek artikulua honetan Ibarnegarayk ligak ezereztatzeko proposatu ziola Blumi, lortu ez bazuen ere: “Deputatuak miretsiak egon zaizko, zer bihotz zabala duen, eta hala da, bihotz nasaia du.

Uste izan du, giza-gaizokak, otsoari musu ematea aski zela bildochteko... Toki onean ari zen. Ezkertiarrek gain-gaitetik trufatu zaizko. Blum azeri zaharrak ihardetsi dio baietz bai... harek nahi legea eginen zutela, Frantsesen arteko bakeak merechi zuen bezala. Begiak bustitu dira Blum eta Ybar, otsoa eta bildotcha, besarkazera toaztzilakoan”.

54. “Parlons net”, *Aintzina*, 1936ko otsaila.

55. Ibidem.

56. Triki-Traka: “Ethiopia”, *Aintzina*, 1935ko abuztua.

Lafitten aburuz erregimenak helburu zehatz bat eman beharko zion aurrera zeraman berrikuntza nazionalari; adibidez, derrigorrezkoa litzateke Estatuak irakaskuntza antolatzeari uztea. Esaten zuen Ingalaterran, esaterako, gurasoek eskubidea zutela umeei nahi zuten sinismen erlijiosoarekin irakasteko, Estatuak ezin zuela eskua sartu dirua emateko baino edo lekuren baten eskolarik ez egotekotan sortzen laguntzeko. Horrela, Ingalaterran Estatuak behin eskola eraikirik, kontrol pedagogikoa baino ez zuen egingo. Jokaera honekin berdintatua nagusitzen zen Lafitten ustez, ez Frantzian gertatzen zen moduan⁵⁷.

1935ko urriaren *Aintzina*n Lafittek kritika egin zien Laval eta bere gabinetekoei⁵⁸, gutxiengo eskubideei zegokienez eta gomendioa egiten zien –heurei eta aldizkari batzuei, Pariseko La Croix horien artean– R. P. de La Brière⁵⁹ horri buruz esandakoa kontutan hartzeko. Lavalek eskatu ei zion Memeleko senatuei bertako alemanen berezitasunak kontutan hartzeko, hezkuntza, arraza eta hizkuntza errespetatzeko, heuren, gobernu frantziarrek, Alsazia herrian gauza bera egiten ari zirelakoan. Baina Lafittek gogoarazten zuen Laval ministrariak esana zuela Frantzian ez zegoela gutxiengo etnikorik, azkenean unifikazioa lorturik zegoela lurralde frantziar osoan. Artikuluaren amaieran pozten zen Lafitten ikusteaz herri alsaziarraren estatutua onartzeaz eta espero zuen euskaldunek gauza bera lortzea egunen baten.

Pariseko gobernuarekiko ezadostasuna agertu zuen berriro Lafittek 1935ko azaroaren alean⁶⁰. Gerra hurbil ikusten zenean buruzagi frantziarrek erabaki zuten eskualdeei eskubide guztiak kentzea eta hirien menpe jartzea. Ontasun eta arma guztiak Parisen batu zituzten, desegokiro Lafitten ikuspuntutik, Paris suntsiturik suertatuko balitz beste lurraldeek ez bailukete tresnarik edukiko etsaien kontra egiteko. Armen industriak sakabanatzearen beste abantaila bat litzateke lanpostuak ugalduko liratekela, lana banatzean eskualde ezberdinen biztanleen artean; horrela jendea lotuago egongo litzateke sorterriari, gaineratzen zuen Lafittek.

1936ko martxoaren zenbakian⁶¹ Hitleren ekintzen berri eman zuen. Frantziaren eta Errusiaren arteko hitzarmena⁶² Locarnoko⁶³ akordioaren kontra zihoalakoan, Alemaniak berrarmaketari ekingo zion, soldaduak jarritzat Frantziako mugan. Frantziak eta Ingalaterrak, gerrarako gogo gutxiarekin, ez zuten eragozpenik jarri; Frantziak Ingalaterrari laguntza eskatu zion baina britaniarrak ez adituarenak egin ziren, Ingalaterrak Etiopiaren alde hitz egin zuenean Frantzia ez adituarena egin zen era berean. 1935ko apirilko alean zioen Lafittek: “Frantzia beheiti ari da, Europako erresuma handien artean: beha nola Angleterraren meneko dagon eta zoin handizki muntatzen ari diren bai Alemanian, bai Italia. Orhoit giten Espainia mugan dugula eta hura ere komunichiten eskupean. Bi aldetarik setiatuak, zer egin ginezake, ez baginu aitzinetik Eskual-herria barnez gogortua ta kasik gainahal bezala bizitzerat aphaindua?”⁶⁴.

57. Maurice Lanoire: “Pour la liberté des instituteurs et parents”, *Aintzina*, 1935ko iraila.

58. B.S.: “La logique de Laval et Cie”, *Aintzina*, 1935ko urria.

59. Piarres Xarriton: “Lafittek, holan baitzen, igortzen zizkion bere dokumentazioa, publikatu aintzin, Yves de la Brière, Yves de la Brière baitzen intelektual frantses bat, jesuita, Les Etudes journal horrtan egiten zuena kronika, nazioarteko kritika; horri bidali zion berifikatzeko, doktrina sozialen eta politikaren arabera”.

60. Triki-Traka: “Bide bakharra”, *Aintzina*, 1935ko azaroa.

61. “Konzientzia eskasa gerla-bide”, *Aintzina*, 1936ko martxoa.

62. “Pierre Laval se rendit à Moscou pour y procéder à l'échange des ratifications du traité d'amitié et d'assistance mutuelle franco-russe signé à Paris le 2 mai 1935.”, Goguel: op. cit., 418 or.

63. Locarno hitzarmena 1925ean sinatu zuten Chamberlainek, Briandek, Stressemannek, Mussolinik eta Vanderveldek. Akordio horren arabera Frantziako, Belgicako eta Alemaniako mugak zehaztu ziren; erabaki zen ere Alemaniak ezin izango zuela Renania okupatu, Alemania Sociedad de Nacionesen sartu zen eta Belgikak utzi zion neutral izateari.

64. L. G.: “Ez lokhar”, *Aintzina*, 1936ko apirila.

Lavalek urtarrilaren 24an dimititu zuen eta ordezeko bat aukeratu ostean, maiatza arte, bozketa legislatiboak ospatu ziren 1936ko maiatzean, Frantzia osorako Blum sozialista garaile suertatuz. Lafittek zioen batzuek itxaropena zutela Blum laster asetuko zela eta eskuindarraren aukera izango zela, baina Lafittek ez zuen hain argi ikusten. Beharbada, zioen, Espainian bezala hasiko ziren elizak eta abadetxeak erretzen. Jarraitzen zuen esaten: "Mendiz bertzaldeko Eskualdun suharrek⁶⁵ ez dute segur 'Frente popular' delakoarekin deus adichkidantzarik. Halere badakite hartaz baliatzen: eta menturaz ezkertiarren ganik eskubide gehiago bilduko dute, eskuinarren ganik bilduko zuten baino... Gauden beraz erne. Elgar adi dezagun buruz-buruka, batetik bertzera. Egin dezagun lana ichilka, kontrabandick-tek bezala. Gu gure chokotik gauden erne, Jel baithan bethi bat"⁶⁶.

1936ko maiatzaren hauteskundeetan Ibarnegaray, Delzangles eta de Coral eskuindarrak suertatu ziren garaile Ipar Euskal Herrian. Esaten zuen Lafittek ezkertiarrek ez zutela bereganatu eskuinak izan zuen garaipena, "bainan gatuak bezala zazpi bizi izaki-eta, ez dira kolpetik hil ez eta alditchartu. Ordainaren emaiterat doazkigu eta astirik galdu gabe berehala abiatu dira"⁶⁷; ezkertiarrek hamabi ehun botoak bereganatzeko asmoa ei zuten Baionako bi eskualdeak ezkertiar bihurtzeko. Horren inguruan bazirudien "erdi-zuri" eta "erdi-gorri" batzuen artean bilerak egon zirela Baionan, baina, zioen Lafittek, "zertako behar litazke egiazko eskualdun zintzoak holako jendeen solatik ibili?. Gauden bada gure ideiekin... Haren kidekoekin, ordu denean, bat egiten ahal dugu bozeri buruz, heieri josiak egon gabe"⁶⁸.

1936ko ekainaren zenbakian Blumek otsaileko *Populaire* egunkarian politika sindikalistari buruz idatzitakoa aztertu zuen Lafittek⁶⁹. Sindikatuek Estatu mailan parte hartu beharrean, zereginen banaketaren alde agertu zen hasiera baten Blum kontseiluko ministraria. Baina Blumek boterea eskuratu zuenean ekintza batzuk eraman zituen aurrera, lehenago pentsatutakoarekin zerikusirik ez zutenak: CGT Estatuan parte har zezan saiatu zen, CGT autonomia-aren kontra zihoala ("Comme la C.F.T.C., nous sommes partisans d'accords inter-syndicaux, mais nous n'acceptons pas l'absorption des syndicats les uns par les autres"⁷⁰), Matignon hitzarmena sinatu zuen –ez zegozkion arloetan sartuz–, jabego eskubidea ez zuen errespetatu, etab. Artikuluaren egileak Staline, Mussolini eta Hitlerekin parekatzen zuen Blum, pentsabide demokratikoaren kontrakoak zirelakoan lauak.

65. Los resultados favorables en el confunto estatal a la recién formada coalición electoral frentepopulista tuvieron en el país una confirmación del sistema vasco de partidos. El PNV siguió ejerciendo el papel de partido 'bisagra' entre el Frente Popular, más débil en Euskal Herria que el resto del Estado, y las derechas, menos representadas por la CEDA que por la Comunión Tradicionalista. El mapa fruto de los resultados electorales, con Gipuzkoa Bizkaia como zonas de predominio frentepopulista y nacionalista vasco y Alava y Navarra con predominio derechista, fue un anticipo del que se compuso al inicio de la Guerra Civil", Majuelo Gil, Emilio: "La II República (1931-1936)", *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, Joseba Agirreazkuenaga (dir.), El Mundo, 1994.

66. Bidezaina: "Gauden erne", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

67. Manech: "Geroari buruz", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

68. Ibidem.

69. "Décentralisation et syndicalisme", *Aintzina*, 1936ko ekaina.

70. Ibidem. C.F.T.C. (Confédération française des travailleurs chrétiens): "Ouverte à la laïcité, compréhension de la politique du Front populaire (conventions collectives), sont les thèmes principaux d'un syndicalisme qui, sur le plan politique, se sent proche du Parti démocrate populaire. Avec près de 400.000 adhérentes, la CFTC ne dispose pas d'une puissance analogue à celle de la CGT (plus de 3 millions) mais bénéficie d'un large rayonnement chez les fonctionnaires, les employés et les femmes tout en demeurant enracinée profondément dans la culture du catholicisme social", Vandengussche, R.: *Dictionnaire historique ...*, 153 or.

1936ko uztailaren 18an ligak debekaturik izan ziren, horien artean Croix de Feu⁷¹. Irailaren *Aintzina*⁷² horren berri eman zuen Lafittek. Bazirudien *Aintzinak*oez ez zituztela inoiz gazteak oharterazi Croix du Feu-ren buruzagia zen La Rocque koronelaren kontra ("Ez ditugu halere nehoiz pusatu, zeren "Croix du feu" direlakoen programa biziki goibela iduritu baitzaiku pundu hainitzetan. Deus gaichtorik ez segurki, baina ahul-aire!"⁷³). Baina behin liga barreiatutik de la Rocquek Dorioten⁷⁴ inguruan bildu nahi izan zuen jendea, desadostasuna agertu zuela Lafittek ("Doriot-en programa-k La Rocquenaren eite handia duela diote; baina kolonela erdi-lo dagolarik, bertzeak bazterrak harrotuko omen ditu"⁷⁵). Gazteei esan zien Lafittek katoliko batek ezin lezakela onartu Dorioten egitaraua, nazionalismoaz zein internazionalismoaz ernegatu baitzituen.

Hegoaldea

1934ko urriaren alean Espainian burututako bozketaren berri eman zuen Lafittek⁷⁶, herriak Estatutoari baietza emango zion ala ez jakiteko bozketa, hain zuzen ere. Gobernuak aditzera eman ei zuen Estatutoa onartzen zuten kopurua %66tik gorakoa izan beharko litzatekela. Hauteskundeak ospatu zuten eta % 82-ak baietz esan zuen. Hala ere Madriden ez zen onartutakoa sinatu, arazoak egon baitziren Samperen gobernukoekin, 'concierto económico' zela eta; Gobernuaren aldetikako oztopo horien aurrean auzapezak eta kontseiluko gehienek dimittitu zuten. Urrian alderdi jeltzailekoek Cortes-etarako ministro berria aukeratu zuten, baina jeltkideek ez zuten ez bat egin, ezta kontra agertu ere, hilabete hortan hiri industrializatueta buruturiko grebekin. Honi buruz zioen Lafittek: "Horra zergaitik eskualdunak ez diren mugitu Espainiako azken nahasmendu hortan. Ez dira arrazoinik gabe higitu nahi; are gutiago gorri-beltzen zakhu handian sartu nahi. Heiekin lanean aritzea helbide zuzen bati buruz, hori bai egoki zaiote; baina helburua edo chedea gaichtatuz geroz, goraintzi etcherat!..."⁷⁷.

71. "La permanence des affrontements conduit, le 10 janvier 1936, au vote d'une loi permettant la dissolution des organisations susceptibles de mettre en péril l'ordre public et la paix civile. Le gouvernement de Front populaire, le 18 juin, décide, sur proposition du ministre de l'Intérieur Roger Salengro, d'appliquer la loi, quatre décrets -l'un d'entre eux concerne l'Association des Croix-de-Feu -prononcent la dissolution des ligues. Le 10 juillet 1936, le colonel de La Rocque crée le Parti social français", Borne, C.: *Dictionnaire historique* ..., 248 or.

72. "Doriot", *Aintzina*, 1936ko iraila.

73. Ibidem.

74. Jacques Doriot (1 898-1945) buruzagi komunista Parti communiste françaisen idazkaria izan zen. "Lors des événements de février 1934, Doriot rompit la discipline du parti en pratiquant une politique unitaire avec toutes les forces de gauche. Mais, bien qu'il eut fait l'appel à l'IC dans une "Lettre ouverte" repandue en mars, il refusa de se rendre à Moscou à la convocation qui lui avait été adressée en même temps qu'à Thorez. Dès lors, le PC réduisit progressivement la dissidence et finit par exclure Doriot", Brunet, J. P.: *Dictionnaire historique* ..., 303-304 orr.

75. "Doriot", *Aintzina*, 1936ko iraila.

76. Zotil: "Zuhurtzia", *Aintzina*, 1934ko urria.

77. Ibidem.

"Al fin, en el verano de 1933 los ayuntamientos vascongados aprobaron el proyecto de Estatuto (Asamblea de Vitoria, 6 de agosto de 1933); pero con una oposición creciente en Alava debida sobre todo al diputado carlista Orios, para quien sin Navarra la autonomía ya no era conveniente para Alava ante el muy superior peso demográfico y económico de Vizcaya y Guipuzcoa....A finales de 1933, cuando el proyecto estatutario vasco fue presentado al nuevo Parlamento, la situación política española había cambiado sustancialmente: las elecciones habían sido ganadas por la CEDA de Gil Robles y el Partido Radical de Lerroux, que gobernaron durante el segundo bienio republicano. En los primeros meses de 1934, El Estatuto vasco, impulsado por los nacionalistas, fue torpedeado en las Cortes por las derechas con el pretexto de la "cuestión alavesa": para Oriol Alava no había aprobado el proyecto y debía retirarse el proceso autonómico.... Las Cortes no aprobaron la retirada inmediata de Alava por escasa diferencia de votos, debida a que los regionalistas valencianos no siguieron a la mayoría de la CEDA... En junio de 1934 el Estatuto vasco quedó

1936ko apirilaren alean Espainian burututako bozketa legislatiboen berri eman zuten: Front populairek 7 deputatu atera zuen: 3 republikazale, 3 sozialista, 1 komunista; eskuindarrek 17 deputatu atera zuten: 5 tradizionalista, 2 cedista, 1 independente, 0 alfonsista, 0 liberal independente. Bozketak amaiturik partidu guztiak batu ziren Cortesen aurrean estatu-toa aurkezteko.

1936ko uztailaren zenbakian, Espainako gerra pizturik, egoeraren azalpena agertu zuen Lafittek "Lutte fratricide" artikuluan⁷⁸. Bere ustez Espainako gerra zibila aspaldiko borrakaldien errepikapena zen, Nafarroa alde batean eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia bestean. *Aintzinakoek* bi fronteetan zituzten lagunak eta biek arrazoia zutela esaten zuen, zail egiten zitzaizela epaiketa bat agertzea. Karlisten jarrera agertu zuen lehenengo; hauen aburuz nazionalistak Frente Popularekin elkartu ziren, sozialistekin eta komunistekin, ordena eta erlijioaren kontra. "Ils ont vendu leur ciel, ils perdront aussi la terre! Ah! s'ils avaient marché avec les Rebelles, au grand coeur, quelle unité, quel laurak bat! On aurait bouté le communisme hors d'Euzkadi, et qui sait si, la résistance se prolongeant sur les bords de l'Ebre, le grand jour de l'autonomie n'eut pas sonné! Tel est le langage qu'un ami cher m'a tenu dernièrement entre deux batailles"⁷⁹. Nazionalisten jarrearen berri eman zuen jarraian⁸⁰; Lafittek

del pleito que enfrentaba a la Generalitat con el Gobierno del Partido Radical por la ley de contratos de cultivo.... quedaba patente el cambio de interlocutor político del PNV en Cataluña: ya no lo era -como en el primer bienio- la Lliga de Cambó (que había denunciado esa ley del Parlamento catalán), sino la Esquerra del presidente Companys.... Además, el respaldo del PNV a dicha ley reformista obedeció a motivaciones ideológicas: la consideraba conforme con la doctrina socialcristiana, como mostraba su aprobación por la Unió Democràtica de Catalunya, el partido católico de Carrasco Formiguera, con quien mantenía excelentes relaciones el PNV. Todo esto le acarreó fuertes ataques por parte de la prensa derechista vasca y española....

Entre julio y septiembre se produjo el conflicto de los ayuntamientos vascos, de mayoría nacionalista y republicano-socialista, con el Gobierno de Samper por problemas relacionados con el Concierto económico; conflicto que provocó la ruptura definitiva del PNV con la CEDA y con el sector católico independiente de La Gaceta del Norte. De hecho, los dos bandos enfrentados militarmente en la guerra civil en el País Vasco existían ya políticamente en el tenso verano de 1934: en un lado se hallaban el nacionalismo y las izquierdas, en el otro se situaban la CEDA, el monarquismo alfonsino y el tradicionalismo, amén el Partido Radical, muy débil en las provincias vascas.

El 1 de octubre, de acuerdo con la Esquerra, la minoría nacionalista vasca regresó a las Cortes. Cuatro días más tarde, al incorporarse tres ministros de la CEDA al nuevo Gobierno presidido por Lerroux, estalló la revolución. Ante ella la actitud del PNV fue de neutralidad: no la secundó (al contrario de la Esquerra y la Generalitat), pero tampoco la combatió, a diferencia de las derechas y del Partido Radical. Desobedeciendo las consignas de abstenerse de intervenir dadas por sus direcciones, algunos nacionalistas y solidarios vascos (miembros del sindicato STV, afín al PNV) sí participaron en la huelga revolucionaria en localidades industriales de la margen izquierda del Nervión, cerca de Bilbao, pese a no tener ningún contenido nacionalista en Euzkadi, a diferencia de lo sucedido en Cataluña. Eso contribuyó a las virulentas diatribas de las fuerzas derechistas contra el PNV, al que acusaron incluso de estar vinculado a la Masonería y de haber sido "cómplice de la revolución" socialista, aunque entre ésta y el movimiento municipalista vasco no hubo nexos de causalidad. El PNV sufrió la represión gubernamental, junto con las izquierdas si bien en menor cuantía, especialmente en Vizcaya, con clausura de centros, encarcelamientos de militantes, detención de dirigentes y diputados: pero esto no le impidió otorgar su voto de confianza al Gobierno de Lerroux en el Parlamento.

Todo esto provocó una crisis en el seno del PNV, en la medida en que ideológicamente no había renovado sus postulados tradicionales, mientras que políticamente había evolucionado hacia el centro y se encontraba más cerca de las izquierdas que de las derechas, de las cuales le separaba ya un abismo.", Granja Sainz, José Luis de la: *El nacionalismo vasco: Un siglo de historia*, Tecnos, Madrid, 1995, 134-136 orr.

78. "Lutte fratricide", *Aintzina*, 1936ko uztaila.

79. Ibidem.

80. 1936ko abuztuaren *Aintzina* ere jarrera bien berri agertu zuen Lafittek, nazionalistak eta karlistak bat eginda bezala aurkezu zituen: "Mugaz bertzaldeko berri" artikuluan: "Nafarroan hasi zen bada soldadoen jazarkundea; eta bitcheria! beren mendekio lehena, jakin gabe ere noren alde jarriko ziren nazionalistak, heien kazetaren etcheari su eman zuten. Nazionalistak harritu ziren, bainan ez halere bihurtu. Gehiago dena, karlistekin joaki dira haste-hastetik Nafartar abertzale edo nazionalista gehientsuak.

uste zuen nazionalistak Kataluniaren eta Galiziaren askatasunerako ekintzei atxeki behar zitzaizela Euskal Herriak ere askatasunaren alde borroka zezan. Primo de Riveraren diktadurak Elizaren moralak mespretxatu zuela zioen Lafittek; bestetik, Frente Popularen kontra zegoen ere, eskualzaleen etsaiek aldeketasuna frogatzen saiatzen baziren ere.

Lafitentzat Espainian borrokatzen ari zirenen jarrera biak ziren defendagarriak, "car il y a à la clé une question d'appréciation qui est subjective: qu'il y eut du désordre en Espagne, d'accord; que se soulèvement militaire fut le moyen légitime d'y porter remède, et non pas le moyen de le remplacer par un désordre fasciste, ici les réponses varient"⁸¹. Amaizten zuen artikulua esanez diktadurak, hau da eskuineko estatismoak, estatutua galereziko baluke ere, komunismoa, hau da ezkerreko estatismoa, are txarragoa izango litzatekela.

1936ko abuztuaren alean Espainako nazionalistekin bat egin zutelaren zurrumurrei aurre egin zion Lafittek: politikaren alorrean ez zuten inolako lokarririk nahi, eskualde frantziarrak zein espainiarrak norberak bere interesak zaindu behar zituen. Bestetik, kulturari zegokionez, "zazpiak bat" leinari atxekitzen zitzaizotela, zioen: "Politikaz den bezanbatean, gauden nor gure alde antola ditela ahal duten bezala Espainiarekin; gu Frantziarekin antolatuko gira. Gero, eskualdun mintzai, teatro eta ohidureri buruz, ez dugu nahi zazpi eskualdeak berech diten elgarretarik, eta egia da, deus heraberik gabe agertu girela bai nazionalisten bai tradizionalisten bilkuretan. Bainan ez dugu haien politikari den gutieneko zorrik. Frantziako regionalistekin dugu guk egitekoa, erlisionearen batean zetabetzen ditugularik heien irin guziak"⁸². Politikaren alorrean ez zuen sartu nahi, baina ez zuen ukatzen harriturik geratu zela nazionalistak Frente Popularekin elkartu zirenean, adierazi ere egin zuela; nazionalisten erantzuna izan zen Espainiako apezzen aurrean egindakoaren zuritzekoa zurituta zutela jadanik.

Borrokaren aurrean, apezpikuek heuren eritzia agertu zuten. Ondo zeritzeten Euskal Herria euskalduna eta giristinoa izateko aukeratutako bidea, hau da estatutua, hori lortzeko komunistekiko elkartea baztertu ezker. Apezek heuren eskutitz baten agertu zuten nafartarrak nazionalistekin baketu nahi zituztela eta abegi onaz hartzeko esaten zieten nafartarrei nazionalistek onera etorri nahi bazuten; nazionalistei ere nafartarregana hurbiltzeko gomendio egiten zieten. Ahaleginok alferretan izan ziren eginak Lafitten ustez: "Aithortu behar dugu alferretan ari izan direla, bai Iruñean, bai Donostian. Iruñen, Apezpikuen letratik ez dituzte atchikitzen nazionalisteri doazkoten lerro biphilak baizik. Donostian, harrituak daude nola gerla hastapenetik hunat aphezen konseiluak kanbiatuak diren, eta bakhea egitekotz, ohorezki nahi dute egin... edo batere ez"⁸³.

Abuztuaren alean Mauriacek esandakoa gogoratu zuen⁸⁴, honek uste zuela altxamen-dua prestatu zutenak eta inperio zentralisten alde azpilanean aritu zirenak berberak zirela, horren frogak izanda Marruecosera joandako abioi italiarrak eta abioi alemaniarren presentzia Euskal Herrian. Mauriacen ustez altxatutakoek gobernu totalitarioekin elkartu nahi zuten, hori zela italiarren eta alemaniarren egotearen zioa. Espainia Francopéan egotean

Itsas-hegian aldiz, ez zakiten norat jo. Ez ziren mugitzen ez alde baterat, ez bertzerat... Bainan ez zitazken hola egon: bi aldetarik hasi zatzaizkoten tiroka... Anartean behar zen ernatu. Zonbait ez iduritzen jeneralek gaina har zezaketela gobernuari. Bertzalde gobernuak "araudia" edo "estatutua" berri-berritan hitz-emana; eta, kontuaren gainerat, bai Galiziatik, bai Kataloñetik, adichikideak dei-ka othoi Gobernuak sustenga zezaten, gero denek elgarrekin azkar izanen zirela beren dretcho edo eskubideen galdetzeko", "Mugaz bertzaldeko berri", *Aintzina*, 1936ko abuztua.

81. "Lutte fratricide", *Aintzina*, 1936ko uztaila.

82. "Mugaz bertzaldeko berri", *Aintzina*, 1936ko abuztua.

83. Ibidem.

84. "Les deux tableaux", *Aintzina*, 1936ko abuztua 85. Ibidem.

Mediterraneo guztia gobernu totalitarioen menpean legoke: Mallorca untzi-basea bezala, Marruecos Afrikaren kontrako militar-basea litzateke eta Espainia Frantzia eta Ipar Afrikaren arteko ebaketa lege. Lafitten aburuz altxatutakoek irabazi balute ere –"Prenons la meilleure hypothèse: le succès des rebelles"⁸⁵– Hurrengo urteak geldotasuna nagusituko zen! gertatutakoa ahaztea zaila izango bailitzateke: gizonen falta, gobernu berria, gorrotoa hildakoak gogoratzean, mendekuak, etab.

1936ko irailaren alean egunkari batzuek Aita Sainduari buruz agertu zuten berrien kontra azaldu zen Lafitte; La Francen, esaterako, bertan esaten baitzuten: "Aita Saindua mintzatu da: Elizaren buruzagi handiak erakutsi du lehenik nolako pena izigarria izan duen, Espainiako trichtezen berri jakitearekin... Eta zerk piztu du gerla hori? Komunismoak eman dio lokhia eta itzakia. Komunistek erain dute herra gizonen artean... Gero Aita Sainduak benedikatzeko ditu, Jainkoaren gatik sofritzen eta lanean ari diren guziak, edozoin aldetan izan ditene... Azkenean Aita Sainduak benedikatzeko ditu gerla izigarri hunen geldiarazten ari izan diren guziak"⁸⁶. Lafitten ustez esandako guzti hori gezurra zen; bere eritziz Aita Sainduak ez zuen ezer agertu Espainiako gerrari buruz.

Espainiako gerraren inguruan Lafittek alde bietakoen eritzi batzuk jaso zituen; bertan Espainiako gerra "guerre fratricide" ez izendatzeko zioten. Nafarroako apez baten aburuz ordenuaren eta gatazkaren arteko borrokari edo mendebaldeko zibilizazioaren komunismoaren kontrako aurkaketari ezin "guerra fratricide" deitu; "si les basques de la côte cantabrique n'ont pas compris, tant pis pour eux! Qu'ils paient de leur sang leur pacte infame avec les pires ennemis de la société"⁸⁷. Beste aldeko batek, bilbotar batek, ere idatzi zien esanez ez zela "lutte fratricide", baizik eta kontrakoa, euskaldun guztiek batu baitziren etsaiaren aurka; Jainkoaren garaipena eta euskaldunen arteko bakea zen eta ez gerra. Lafitten ustez "lutte fratricide" zen euskaldunak eta nafartarrak borrokan ari zirelako. Nahi izan zuten etsaien arteko hurbilketa bat, donostiarren errendizioa bultzatuz, hiria salbatzeko alde batetik, eta bestetik, "que la conduite des Navarrais serait l'expression de leur foi généreuse et démontrerait les intentions droites des militaires"⁸⁸. Hildako apezzen zerrenda aldizkarian agertu zuen, Jose de Ariztimuño⁸⁹ horien artean.

1937ko apirilaren alean Gernikan burututako bonbardeaketa salatu zuen⁹⁰. Esan zuen Francoren aldeko abioek ez zutela gerlak zituen legeak errespetatu, Gernika hiri librea zela, hau da armadarik gabekoa, eta ez zutela bonbardeatzeko eskubiderik. Francoren jarraitzai-

86. "Aita Sainduaren hitza", *Aintzina*, 1936ko iraila.

87. A.B.: "Noel sur les tranchées basques", *Aintzina*, 1936ko abendua.

88. Ibidem.

89. Piarres Xarritonek: "Eta egun hautan atzeman da Lafitten paperetan Aitzolek hil aintzin idatzi duen azken kartetarik bat. Zeren hil zuten uste dut 17an, urriaren 1 7an, Hernaniko hilerrian, eta karta idatzia da Beloketik 10ean, urriaren 10ean, Lafitteri Ustaritzetat, eta hor eskatzen dio Lafitteri idatz diezaion aita Lhande jesuita eskualtzainari Pariser joaiteko harentzat, Aitzolentzat, ... tokirik Parisen; gogoan luke Pariserat joaitea karta horren arabera eta... ez zen egon erantzunaren zain, dirudienez, bainan berehala joan zen Hegoalderat eta handik deia izanik abiatu zen Bilbora eta bidean hartu zuten barkoan".

Jacques Mestelanek: "L'abbé Lafitte était très lié avec l'abbé Ariztimuño, qui, d'ailleurs, s'était réfugié ici et à qui on lui avait dit, après, que les franquistes avaient occupé San Sebastian, tout la côte et le Pays Basque; on lui avait dit: "surtoit ne rentre pas là", il avait dit: "il faut que je rentre, moi je ne puis pas laisser mon peuple seul sous la dictature", on l'a dit: "si vous rentrez vous allez vous faire arrêter", Lafitte lui dit: "nén rentre pas"; il est rentré... et fusilé... un scandale".

90. "Guernika", *Aintzina*, 1937ko apirila.

leen artean lagunak bazituztela ere, leporatu zien Jainkoaren izenean aritzea eraso aurrera eramateko.

Gerra giroa nagusia zenean, Nafarroako sistema foralaz aritu zen 1937ko irailaren alean. Lafittek zioen nafartarren desio autonomistek ez zutela arriskatzten Espainako batasuna; miresten zuen karlistek borrokari ekitea Castilaganako zuten leialtasun sentimenduak bultzaturik: "c'est, je pense, la Navarre, qui a lutté contre la Guipuzcoa et la Biscaye, justement au nom de l'unité espagnole. On a chanté, à droite, l'ardent patriotisme, la foi superbe des requetes. Personne ne suppose que ces carlistes aient l'intention de démolir l'Espagne. Tout le monde admire leur héroïque fidélité à la Castilla, dans les circonstances actuelles"⁹¹. Lafitten ustez nafartarren sentimendu foralistak suposatzen zuen erregionalismoa zuzena eta egokia zen, Frantziarako ere desiragarria. Eta amaitzeko: Espainako lurralde guztien eskubi-deak zaintzearren eta probintzia guztien autonomiaren alde zegoen, nazioaren batasunari oztoporik egingo ez ziotelakoan.

1937ko maiatzaren *Aintzina* Espiniako errefuxiatuei aterpe emateko laguntza eskatu zien Lafittek irakurleei: "Eta Bizkaiako haurren alderat nahi dugu denek zerbait egin: heien burhasoek gerla huntan arrazoin dutenez ala gaizki dabiltzan, ez dugu kasu huntan holakorik bilhatu behar; norbait kulpaturik atchemaiten badugu, bidean oto batek lehertua, ez gare ariko galdez eta galdez eskuin johan zenetz ala ezker: haren zauriak ditugu arthatzen, eta gineratekoa jujearentzat uzten"⁹². Herritarrei eskatu zien hutsik zeuden etxeak uzteko iheslari espaniarrei aterpea emateko, baita dirua emateko janaria eta jantziak heurentzako erosteko: "Frantesak hain urrikari badituzte, orhoit ditela ondargerlan eskeak egin direla mendiz handiko Eskual-Herrian Frantsesentzat"⁹³.

Gazteria

Lafittek, bera garai hartan gaztea ere izanda, jarraitzaile gazteei irakaspenak zuzentzen zizkien artikuluen zehar; aholkuez beterik dago aldizkari guztia, bide batez. "Eskualtzale, bai; Bainan, oroz lehen herrizale"⁹⁴ izenpeturikoan gogorazten zien pertsonak zuzentasunaren bila joan behar zirela zorigaitzatik aldentzeko eta familian, auzoan eta erresuman zoriona nagusi daiten; horrela, zioen, gizasemea herriazalea izan behar zen lehenengo, euskerazalea baino; horren ostean "ez badiogu odolari, sort-herriari, ukho egin nahi, behar dugu eskuara begiratu, ez ederra delakotz, bainan gurea delakotz"⁹⁵.

Gazteen gai guztiez arduratu zen Lafitte, horien artean lanaz. 1935ko urtarrilaren alean⁹⁶ gazteentzako lanaren alde egin zuen eta adineko langileei erretreta har zezaten gomendatu zien lanpustuen kopurua ugaltzearren. Ordurarte Gobernuaren eskuetan zegoen lan-politika desegokiro eramana zen Lafitten ustez; esaten zuen langileek osatutako mutualitateak eta mota horretako biltzarrak arduratu beharko liratekela langabezia gutxitzeko ekin-tez.

91. J. Duhalde: "L'Exemple de la Navarre", *Aintzina*, 1937ko iraila.

92. "Girichtino zare!", *Aintzina*, 1937ko maiatza.

93. Allande: "Bi Alderdiak", *Aintzina*, 1937ko iraila.

94. S. B.: "Eskualtzale, bai; Bainan, oroz, lehen, herrizale", *Aintzina*, 1934ko urria.

95. Ibidem.

96. Léon Ertoran: "Lana gazteri", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

Begiraleak

Lafittek neskak elkartuko lituzke talde bat osatzea egoiki ikusi zuen eta Begiraleak sortu zuen, baina Lafitte bera horren atzetik zegoela inoiz agertu barik⁹⁷. Horrela “Begiraleak” artikularen izenpean talde horren berri eman zuen *Aintzina*ren bigarren zenbakian⁹⁸ jadanik. Helburuak: ohitura zaharrak zaintzea, hauxe amen eskuetan zegoela Lafitten esanetan; euskera hitz eginaraztea; familiari zegozkien sentimenduak suztatzea, hala nola etxeganak amodioa, gurasoenganako begirunea, arbasoen gorespina, garbi eta alai egotea eta, batez ere, erlijioak zuen funtsa barreiatzea; herriko ohiturak babestea, bereziki haur-jokoak eta kantuak, etxeko ohiturak, jatekoen egiteko moldeak, mobleak, soinekoak, teatroa, etab. Emakumeen eskubideak ere zainduko lituzke Begiraleak taldeak, are gehiago aspaldiko Lege Zaharrek euskal emazteen dretxoak onartzen zituztela kontutan harturik, zioen Lafittek; emakumeei zuzendu zitzaizen esanez ordua zela zerbait ikas zezaten, egunen baten boze-maile argituak izan beharko baitziren; sindakatzeko gomendatzen zien ere. Lafittek emaztea bozkatzera bultzatzen zuen, nahiz eta gizon askok esatea emakumeei sukaldean zutela zeregina. “Emazteak sukaldean”, ‘aphezak sankristian’ eta holako hizkuntzak tetele-hizkuntzak dira”⁹⁹ zioen Lafittek, bere ustez emakumeei zeresan gehiago zuten familiari buruz herriko kontseiluetan, gizonen baino. Beraz, komenigarria litzateke Begiraleak taldekideentzat biltzarrak ospatzeko etxe bat izatea, non umeak bilduko ziren, euskal jaiak egingo lituzkete, euskal kantuak irakatsi, etab. Begiraleen beste zeregin bat euskera eskola libreetan irakastea, Jaun Apezpiku ohiak horretarako agindua eman baitzuen eta Gobernuak eskolei zegokionez, gogoarazi zien lege bat zegoela baimena ematen zuena umei euskeratik erderara eta erderatik euskerara itzultzen irakasteko; zereginen artean aipatu zuen ere beste herrietako ume txikiei katixima irakastea eta istorioa saildua eta euskeraz otoizten irakastea. Amaitezko, aditzera ematen zuen Lafittek Begiraleak taldeak zati bat izango zuela beti *Aintzina* aldizkarian heuren helburuak eta lorpenak aipatzeko.

Hizkuntza

1934ko azaroaren zenbakian kazetan erabiliko zituzten hizkuntzen berri eman zuen Lafittek¹⁰⁰. Izatez euskaldunak ziren bezala, herriko hizkuntza erabiliko zuten, hau da, euskera; legez frantziarrak zirenez, frantsesez ere idatziko zuten, gauza guztien gainean girstinoak izatean, latina sartuko zuten aldizkarian, zioen. Ikusten zuten euskera gero eta arlo gehiagotan erabiltzen ari zela, ez guztietan oster; horregaitik frantsesa onetsi behar. Hala ere, irakurleek bai frantsesez bai euskeraz irakur zezaten, erabaki zuten hizkuntza bietan arituko zirela gai ezberdinetaz; era horretan euskera ez litzateke bazterturik suertatuko, ez irakurleen aldetik, ezta idazleen aldetik ere.

Euskerari berari zegokionez, euskalki guztiak egokitatzat jotzen zituen Lafittek. Erabaki hau 1935ko otsailaren *Aintzina* agertu zuen, aldizkariaren egoitzan jasotzen zituzten eskutitzi eta eritziei erantzun nahiaz. Gutun horietan lapurtera zela erabili beharreko euskalkia

97. Pierre Lafittek ‘Augusta Larraalde’ izengoitia erabili zuen Begiraleak emakumeen mugimendua sortzen ari zenean (Emakumeei dei egin zien Eskualduna aldizkarian Begiraleak taldea osatzeko). ‘Augusta Larraalde’ren atzean nor zegoen jakiteko zorian zegoenean, Lafittek erabaki zuen ordeko bat aukeratzea, hori izan zela Madeleine de Jaureguiberry.

98. “Begiraleak”, *Aintzina*, 1934ko azaroa.

99. Mariaño: “Akizen bezala”, *Aintzina*, 1935ko uztaila.

100. “Frantsesa eta eskuara”, *Aintzina*, 1934ko azaroa.

esaten zuten batzuek, behenafarrera besteeak. Lafitten ustez frantziarrek zuten mintzamolde ugaria erabiltzen bazuten hitzak nongoak ziren galdetu barik, euskerak gauza bera egin lezake, euskera joriturako zuena, bide batez: “zonbaitek lapurtarra bachenabartarrez emendatzen eta aberasten badute ere, ez zaiku batere itsusi: frantsesa edo espainola baino hobea zaiku chuberotarra ere lapurterrari josirik”¹⁰¹.

Kultura

Lafittek, *Aintzina* zela medio, hainbat kritika eta azalpenak agertu zituen argitara ematen ziren liburu eta aldizkarietara buruz, idazle eta kulturako pertsonen inguruan.

Hasteko, Lafittek bere irakurleei aldizkari batzuk proposatu zizkien irakurtzeko¹⁰², hala nola *Action Régionaliste*, Fédération Régionaliste Française-k argitaratutakoa, eta M. Poitevinen *Le Fédéraliste*, Foyer d'Etudes Fédéralistes-n agerkaria, eskualerrizaleentzat pertsonalismo kristauak Foyer-koentzat baino garrantzi gehiago bazuen ere.

1935ko ekaineko alean kexatzen zen Lafitte Frantzian ezarritako inportaziorako legeetatik liburuak eta diskak Hegoaldetik Iparraldera erakartzeko lizentzia bat eskatu behar zen M. Gilbert batek ordezkatzen zuen Comité interprofessionel-i, aduana eskubideak arautzen zuena. Atsekabez zegoen Lafitte zeren eta Estatu frantziarrak arrotzat hartzen baitzituen Hegoaldeko euskaldunak, aipatu arautegia bete beharko zutela Bilboko eta Donostiako liburuak eta diskak erosteko, edo bestela kontrabandoz lortu: “En France nous n'avons presque rien et l'on fait tout pour nous empêcher de nous procurer ce qu'il nous faut...”¹⁰³

“Nahas-Mahas”¹⁰⁴ artikuluan kulturaren inguruan suertaturiko hainbat ekintzen berri eman zuen Lafittek: Tolosako Mendizabali zorionak eman zizkion kaleratu berri zuen *Poxpolin*¹⁰⁵ umeentzako aldizkari txoa, euskera hutsezkoa. Donibanen ere “Alegera” izeneko biltzar batek –euskal gauzak aritzen zen taldea erderaz aritu arren jaialdi bat prestatu zuen euskerazko komedia bat antzezteko, dantzak eta txistulariak ere hor egonez. Bestetik, Hazparnen Action Catholique-k batzar bat ospatu zuen; bertan Bordeleko Salbatorez Hosteinek hitzaldi bat botu zuen Aita Sainduaren irakaspenaz, langileei eta maisuei zer egin bide zuten gogoarazteko. Jarraitu zuen Lafittek artikulua esanez: “Erran gabe doa *Aintzina* huntan ideia berberak ditugula, nahiz ez ditugun hain frantses zerratuan inguratzen, eta Eskual-herriari manera berezi batez behatzen diogun”¹⁰⁶. Hitzaldi horretan Lafittek ere hartu zuen parte hitzaldian, euskeraz, azalduz: “kazeta neutres direlakoan alderat nola behar dugun mesfidatu... Ez gira batere estonatu finitzean *Aintzina* eta *Eskualduna* goretu dituenen”¹⁰⁷.

Eskualzaleen Biltzarrak 1935ko urtean, irailaren 12an, Atharratzen bildu zen eta bertan parte hartu zutenen berri eman zuen Lafittek¹⁰⁸: Mlle. Hastoyk organua jo zuen goizeko

101. “Nungo eskuara da ederrena”, 1935ko *Aintzina*, otsaila.

102. N. A.: “Le Bloc Régionaliste”, *Aintzina*, 1935ko martxoa. *Aintzina*ren artikulua honetan J. Mihura aipatzen zuen Lafittek gogaide bezala, F.R.F. (Fédération Régionaliste Française)-ko idazkari nagusia izan zena 1935an.

103. “Avis important aux amateurs de disques”, *Aintzina*, 1935ko ekaina.

104. “Nahas-Mahas”, *Aintzina*, 1935ko ekaina.

105. Poxpolin (1935-1936) Isaac López de Mendizabalek Gipuzkoa aldean ateratako komikia izan zen.

106. “Nahas-Mahas”, *Aintzina*, 1935ko ekaina.

107. Ibidem.

108. “La fête des amis du basque à Tardets” *Aintzina*, 1935ko urria.

mezan; Jauréguy Atharratzeko alkateak ongietorria eman zien euskal zale guztiei¹⁰⁹; Dassance Eskualzaleen Biltzarreko lehendakariak hitz egin zuen gero, Etchepare medikua-ren heriotzeaz damutuz; Zerbitzari Biltzarraren idazkariak parte hartu zuen ere ("Le secrétaire de l'Association est un causeur classique si naturel, si spirituel, qu'on ne saurait donner un idée de son rapport rempli de pointes, de citations, de fleurs agrétes"¹¹⁰, zioen Lafittek Zerbitzari buruz); Dufau jaunak egoera ekonomikoaren berri eman zuen, ona zena baina hobe litekena. Hazparne aukeratu zuten 1936ko Eskualzaleen Biltzarraren bilkurarako. Hitz egin zuten gero hiztegia, sintaxia eta ortografiaren bilakaeraren beharraz umeentzako libu-ruetan eta batez ere katiximan. Eskualzaleen Biltzarrerako diru laguntza eskatu zieten euskal udaleei. Jaureguiberry doktoreak hitz egin zuen ere: "les différences de dialectes n'empê-chent pas l'unité morale des sept provinces et les progrès modernes pourraient être des moyens de rapprochement au lieu d'être des instruments de perdition. C'est aux jeunes de réaliser l'idéal des anciens"¹¹¹; Jose Eizagirrek berba egin eta gero dantzariak aukera izan zuten dantza zaharrak erakusteko. Bitartean Biltzarreko batzordeak Atharratzeko Begiraleen egoitzara joan zen non Jauréguiberry andreak Begiraleen egitarauaren berri eman zien "poursauver le basque, tout le monde doit se mettre à la besogne et particulièrement la femme; car c'est elle qui sauve ou perd la tradition dans un foyer"¹¹². Oturuntza hasi baino lehen, non Ligueix, Larralde, Matchin eta Larramendi jaunak bertuka aritu ziren, Guillaumodeguy andreak euskal poesi baten zati bat esan zuen. Arraltsaldean Dassancen eta Oxobyren hitzaldietan nazio-erribindikazioa izan zen nagusi. Hillau andrearen *Egiatzko Uskaldunak* obra zuberotarraren lapurterazko antzezpenaren ondoren eta Elgoyhen jaunak antolatzen zituen dantza taldea dantzaten ikusi ondoren amaiera eman zien Eskualzaleen Biltzarrak Atharratzen egindako bilerari eta Lafittek "Au revoir" batez notizia bukatu.

New Yorkeko Watson Kirk Connelek, nork hainbat urte eman ei zuen euskera ikasteari, euskal hizkuntzalaritzari buruz ondorio batzuk adierazi zituenean, Lafittek esan zion: "Cette rigolade américaine a rempli pas mal de papier-journal vers le premier de l'an. Il n'est vrai-ment pas nécessaire de savoir 55 langues pour affirmer que le basque a beaucoup de préfi-xes, suffixes eta infixes. C'est comme si l'on disait que les mots en basque ont un commencement, un milieu et une fin.... cela doit arriver même dans les langues américai-nes"¹¹³.

Pierre Lhande, gaixorik luzaroan egon ondoren, bere euskal hiztegiaren VII. faszikulua kaleratu zuen. Gorantziak eman zien Lafittek berari eta bere laguntzaileei, Pierre Lafitteri berari eta Philippe Aranarti, biak Uztaritzeko Apezgaitegi handiko irakasleak¹¹⁴.

Duhourcau jaunak *Mercure de France* agerkarian frogatu nahi zuen euskaldunak iberoe-tatik zetozela eta, euskera aztertuz, Kaukaso mendietan ere euskal arbasoen aztarnak zirela. Duhourcauri buruz esan zuen Lafittek: "Zer nahi liburu badu segurki irakurturik, baina luneta bereziak erosi bide ditu heieri lotu aintzinean. Begiorde gorriekin, denak gorri iduritzen zaiz-kun bezala, hari ere, begi-orde iberotaz batzu sudurrean landaturik, denak ibero iduritu zaiz-

109. "Au sortir de l'église, du haut d'un balcon (et non pas du haut d'un ballon, comme l'a écrit un journal de Bayonne) un chœur mixte a entonné 'Agur jaunak' face à la foule massée sur la place", "La fête des amis du basque à Tardets" *Aintzina*, 1935ko urria.

110. "La fête des amis du basque à Tardets" *Aintzina*, 1935ko urria.

111. Ibidem.

112. Ibidem.

113. "Nahas.-mahas", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.

114. "Nahas-Mahas", *Aintzina*, 1936ko martxoa.

ko”¹¹⁵. Lafittek zioen euskerak latinetik hainbat hitz hartu zuela, Europako beste hizkuntzek bezala, baina hitzok ziren baino zaharragozat hartzea ez zion bidezkoa iruditzen.

Gure *Herria* hilabetekariaren ale berria agertzearekin batera, zituen mamia eta idazkera goratu zituen Lafittek; esaten zuen kulturara eta ohituetara mugatzen zela, politikan sartu gabe, baina hala ere aldizkari baliogarria zela. *Aintzina* erregionalista ekintzetan zen bitartean, ideietan zetzan *Gure Herria* aldizkariaren erregionalismoa, beharrezkoa zena ere, zioen¹¹⁶ 1937ko urtarrilaren alean esan zuen Lafittek Gure Herriaz: “c’est la seule publication basque de ce genre qui soit debout à l’heure actuelle, à cause des lamentables événements d’Espagne”¹¹⁷.

Les Racines liburua, Philippe Garrisenena, non agertzen zen: “Les Basques n’aiment pas que les étrangers parlent d’eux: il sont une race orgueilleuse comme toutes les races primitives, ils s’imaginent être seules à se bien connaître, seuls à se bien juger”. Eritzi horren aurrean euskaldunen alde egin zuen Lafittek, esan bazuen ere: “certes nous n’avons pas toutes les vertus et nous croyons que certains traits mis en relief par M. Garris sont bien à nous”¹¹⁸.

Ondorioak

Piarres Lafitte 1926an hasi zen irakasle moduan Uztaritzeko Saint-François Xavier apaiz-gaitegi txikian, erligioa eta filosofia gazteei irakasten. Lafitteri asko kezkatzen zitzaizkion gazteen arazoak: heziketa eta irakaskuntza, langabezia, ezkonberrien bizibidea, arazook bizitzan noraezean ibiltzera baitzaramatzaten gazteak. Problema hauei irtenbidea bilatzeko eztabaida erretzuko lukeen mugimendua sortu zituen: Eskualzaleak, Menditarak eta Begiraleak. Eskual-Etchean biltzen ziren eta edozein motatako gaiet buruz hitz egiten zuten, liburuak eta aldizkariak irakurtzeko bidea izateaz gain. Aldizkari bat behar izan zuten heuren eritziak agertzeko eta taldearen eztabaiden ondorioak jendeari aurkezteko eta *Aintzina* sortu zuen. Jakina, denak ez ziren idazteko gai. Gehienak gazteegiak ziren, Lafitten ikasleak; adinekoren artean idazteko ohiturarik gabe batzuk edo etxeko euskera hitz egiten zutenak baina idazteko gai heuren burua ikusten ez zutenak¹¹⁹.

Beraz, gazteen bilera horietan politikaz, ekonomiaz, familiaz, euskeraz eta abarrez hitz egiten zuten eta gero bakan batzuek aldizkarian gaiotaz idazten zuten. Horien artean, nola ez, Piarres Lafittek, goitizen desberdinez, ziren baino idazle gehiago zegoelaren itxura emateko.

115. Pattin, “Ibero eta buru-bero”, *Aintzina*, 1936ko uztaila.

116. “Choses et autres”, *Aintzina*, 1936ko urtarrila. *Aintzina* eta *Gure Herriaren* arteko harremanei buruz hitz egin digute lekuko batzuk. Jacques Mestelane: “Excellente, excellente pour la raison que c’étaient les mêmes rédacteurs, moi j’écrivais dans Gure Herria, Lafitte aussi, Oxobi aussi, bien sûr; le gens qui écrivait dans Gure Herria écrivait aussi dans *Aintzina*. Louis Dassance, qui était le président d’Eskualzaleen Biltzarra, il nous a toujours soutenu... chaque année il avait l’Eskualzaleen Biltzarra il nous avisait, et d’ailleurs on en profitait pour vendre Gure Herria, pour prendre des abonnés”.

117. “Nouvelles diverses”, *Aintzina*, 1937ko urtarrila.

118. “Les Racines”, *Aintzina*, 1937ko urtarrila.

119. Honako komentario hauek sartzen zituen Lafittek irakurtzaileengan idazteko grinak sortzearen: “N’étant pas spécialiste de la musique, je me contente de livrer ces réflexions aux gens compétents, qu’ils nous disent ce qu’ils en pensent, et ce qu’ils comptent faire”, Pseudo Tuntun: “Aire chaharrak”, *Aintzina*, 1936ko otsaila; “Behar bada ausartegi atchamanen duzue nere galdea. Kontent ez denak izkiria dezagula”, TuntunOrde: “Bide Berriak”, *Aintzina*, 1935ko abuztua.

Erregionalismoaz hitz egin zuen Lafittek aldizkarian, mugimenduaren oinarrian zegoen politikabidea baitzen. Erregionalismoa eta deszentralizazioaren alde zegoen Euskal Herria iraun arazteko bidea zelako, erregionalismoaren bidez bertako bereiztasunak babestea errezagoa bailitzateke: hizkuntza, ohitura zaharrak, euskal musika eta jokoak, eta erlijioasuna ere. Ezaugarri guzti hauek euskal arraza osatzen zuten, inportantea zena besteengandik bereizten zuten neurrian, baina menpekotasunetara eraman barik, Lafitten esanetan¹²⁰. Euskaltasunaren babesle egokia zen, beraz, erregionalismoa, baita lurralde bakoitzaren arazoei irtenbideak bilatzeko biderik aproposena, eta horregaitik ere Lafitte erregionalismozalea zen.

Hala ere, Lafittek ez zuen inoiz independentzia hitza erabili, bidezkoa ikusten ez zuelako, berak azaltzen zuen bezala. Lafittek euskaldunen bereizitasunak zaindu nahi zituen eta, guk uste, erregionalismoa nahikoa zela uste zuen hori lortzeko. Egia da independentzia aipateak ere aldizkaria debekatzera eraman zezakeela eta posible litzateke Lafitte horregaitik horri buruz inoiz ez aritu izatea; baina, horretaz hitz egitea posible izanda ere, ez dugu uste independentziaren alde ezer esanen zukeenik, ikuspuntu ekonomikotik aurrera eramateko biderik ez zegoelako, eta Lafittek bazuen horren ezaguera. Beste gauza bat da Hegoaldeko harremanak; hartuemanak egon bazeuden, arlo kulturean behinik behin, kultura eta politika lotzea erreza baino errezagoa zela (EAJaren hitzaldietara joaten zirenean adibidez); baina Ipar eta Hegoaldearen lotura handiagorik ez zuen nahi Lafittek, bakoitzak bere Gobernuarekin antolatu behar zela, zioen¹²¹.

Hegoaldearekin jarraituz, Lafitten ustez Espainiako gerra Nafarroaren eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoaren aspaldiko borrokaldien errepikapena zen. Lafitten ustez talde karlistaren zein nazionalistaren jarrerak ziren defendagarriak; argi ikusten ez zuena zen altxamendu militarrek baretasuna berreskuratu zukeenik. Primo de Riveraren diktadurak elizaren kontra zihola zioen eta ez zela estatuto zalea, baina Frente Popularrak irabaziz gero are txarrago ikusten zuen Euskal Herriaren egoera¹²²; horregaitik ez zuen ulertu nazionalisten Frente Popularekin elkartzea. Nazionalistak eta nafartarrak elkartzeko ahaleginak egin ziren, Lafittek berak parte hartuz talde bien arteko batzarrean, baina nazionalistak ez ziren ados agertu nafartarren proposamenarekin¹²³. Hala ere, Lafittek erbesteratupei aterpea emateko laguntza

120. A.R.: "La Race", *Aintzina*, 1935ko uztaila.

121. "Mugaz bertaldeko berri", *Aintzina*, 1936ko abuztua. Lekuko batek azaldukoaren arabera: "Oui, on était tout à fait pour le régionalisme d'Hegoalde, puisqu'on avait été en certain mitin; Eugene Goyheneche avait même pris la parole à cette mitin; on était avec eux; d'ailleurs, l'abbé Lafitte était très lié avec l'abbé Aristimuño... Alors, nous étions, bien entendu, tout à fait d'accord avec le nationalisme d'Hegoalde. Alors, évidemment, on ne pouvait pas le démontrer comme on l'aurait voulu parce que, je vous dit, nous avons cette notion de régionalisme; c'était le maximum qu'on pouvait, qui était toléré ici, et encore, je vous ai dit, c'est déjà mal vu ça".

122. "Lutte fratricide", *Aintzina*, 1936ko uztaila.

123. Jacques Mestelane: "Pendant la guerre, quand les franquistes de San Sebastian, il y a eu une reunion, nous étions seuls; on avait le camp de Menditarrak et un soir Monsieur Inchauspe, le banquier de Saint Jean de Pied de Port, est venu et puis il a parlé avec l'abbé Lafitte; c'est moi qui dirigeait le camp, mais l'abbé Lafitte était aumonier; il a parlé avec lui et à un moment donne Lafitte est venu parler avec moi: "écoutez, je vous laisse, il faut que je m'en aille, je vous dirai après.. mais pour le moment je ne vais rien vous dire". Il est parti avec Inchauspe et c'était pour essayer de concilier les émissaires de Mola avec des émissaires du Parti Nationaliste Basque; essayer de trouver une solution pour les empêcher de se battre les uns contre les autres... Je le vois encore; il était sous le tent et il parte.. Cette réunion, il a essayé justement d'éviter qu'ils se battent... où, en tout cas, d'arrêter les franquistes où les requetes, c'était plus tôt les requetes".

Piarres Xarritonek: "Beraz, Lafitte hor ararteko izan zen orduan. Joan zen egun batez, Inchauspe izanik, ikusten iruñeko Molaren edo erreketen paper batekin; Gipuzkoa Buru Batzarrari eraman zion barkuz Lafittek; berak esan zidanaz, orduan lehen aldikoz sotana kendu zuen, azken egunetan hospitalean zelarik holan kontatu zidan, nola bera ka-

eskatu zien Iparraldeko herritarrei, errefuxiatuak zein ideologiatakoak ziren kontutan ez hartzeko eskatuz¹²⁴.

Politika frantziarrari zegokionez, ezkertiarren kontra zegoen eta eskuindarra noiz irabazi zukeen zain. Hautatzaileei ezagutarazten zien nortzuk ziren hautagai egokiak heuren interestarako: giristinoa izatea, gutxiengoaren desirak babestu nahia, famili gunea zaintzeko gura-ria, eskola librearen aldekotasuna (erlijioa zabaltu ahal izateko) eta abar. Garaipena lortzearen edozeinekin elkartzearen kontra zegoen¹²⁵ baina 1936ko hauteskundeetan Jean Ibarregarayren alde agertu behar izan zuen, baita René Delzangles eta Bernard de Coralen alde ere, hau da eskuindar gudulari ohien mentalitatea zuten eta zentralistazaleak zirenen alde, Front Populairek irabaz ez zezan.

Atzerriko politikaren eremuan Staline, Mussolini zein Hitleren politikarien aurka zegoen pentsabide demokratikoaren kontrakoak zirelakoan lauak¹²⁶.

Politikaz gain, aholkuak eman zituen ere ekonomia alorrean. Lafitte jabetza pribatuaren alde egin zuen beti; horren desagerpena eta komunismoa loturik zihoazten haren ikuspuntu-tik. Finantza azpikeriaren kontra agertzen zen, mandatariak salatuz behin eta berriz, baina herritarrei ere esanez dirua jainko faltsu ez bihurtzeko. Sindikatzeke esaten zien, gazteei bereziki, aintzindariak sindikatze prozesuan emandako pausuak kontutan hartuz aurrera jarraitzeko. Beste aldetik, Iparraldean nagusiak ziren ekintza ekonomiko guztien azterketa, gomendioak eta eritziak agertu zizkien irakurleei: nekazariak langilegoak lortutako hobekun-tzen kaltetun bezala aurkeztu zituen, hobekuntzok produkzio prozesua kariatzen baitzuten; langileen eta jabearen arteko tirabirak ikuspuntu bietatik begiratzen ahalagindu zen, batzuk neurrigabeki irabazi nahiz eta besteak dirua lortu guras langileen lepotik; turismoa zela medio dirua irabazten zuten kostaldeko herriek baina kanpotarrek zekartzaten hizkuntzek eta ohiturek ingurunea erdaltzen zituzten eta herritarrak arrotzu.

Euskerari zegokionez, elkar ulertzea erreztuko lukeen edozein motatako euskalkietako hitzak erabiltzearen alde agertu zen Piarres Lafitte *Aintzina* Iparraldeko eskualzaileen hilabe-tekarian.

Bibliografia

AINTZINA: *Un mot d'espoir a nos amis*, Aintzina, 1945.

APALATEGI, J.: "Aintzina o el regionalismo nacional", *Los vascos de la nación al Estado*, Elkar, Donostia, 1979.

BELTZA: *El nacionalismo vasco* (1976-1936), Editorial Txertoa, Donostia, 1976.

patzen zelarik Donibane Garaziko Eiheralarren utzirik bere Menditarrak, bere taldea... utzi zituen bere kontu eta jin zen Uztartizerat, hostalan pausatu zuen, eta lehen aldikoz bere bizian joan zen zibilez, prakak, joan zen barkua hartze-rat Donibane Lohitzunen, eta joan zen eta Donostiarat eta han Gipuzku Buru Batzarren mahai gainean pausatu zuen Iruñarren, Nafarren proposamena... Bai, eta berek ikus zezaten eta hek deitu zieten bizkaitarrei eta bizkaitarrek eman zieten ezezkoa. Baizik eta hori seinale zela, irudiz, beraz galduak zirela nafarrak, eta hori ikusten zelakotz zirela propo-samena hoiekin heldu... Geroztik, Lafitte itzuli zen hunat eta antzeman dugu Lafitten paperetan hor paper txiki bat, Inchauspek bidalia, hain zuzen Inchauspe Donibane Garaziko bankerua, otoi barka eman dizudan ...engaitik, zeren ikusten dugu debalde direla gure pausuak eta hortan beharko dugu utzi".

124. "Girichtino zare!", *Aintzina*, 1937ko maiatza.

125. Manech: "Geroari buruz", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

126. "Décentralisation et syndicalisme", *Aintzina*, 1936ko ekaina.

DIAZ NOCI, Javier: *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.

—, *Euskal presaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, 1994.

DIHARCE, Xabier: "A propos d'Aintzina", *Bulletin du Musée Basque*, 1978, 79 zkia. 37-38 orr.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba (dir.): *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, El Mundo, 1994.

EUSKALTZAINDIA: *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker, Bilbo, 1983.

GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Tecnos, 1995.

HARITSCHELHAR, Jean eta beste batzuk: "Hommage a Pierre Lafitte", *Bulletin du Musée Basque*, 1986, 113-114 zkiak.

INTXAUSTI, Joseba: "Piarres Lafitte-ren oroitzapen-solasetan", *Sancho el Sabio*, 1993, 3.zkia, 285-301 orr.

J.E.L.: *Eskual-herriaren alde. Eskual-herri-zaleen chedeak baitzepadako chehetasun batzuez laburzki argituak*. La Presse, Baiona, 1933.

JACOB, James E.: *Hills of Conflict. Basque Nationalisme in France*. University of Nevada Press, 1994.

LARRONDE, Jean-Claude: *Eskualerri-zaleen Biltzarra (1932-1937). Eskualerrizaleen mugimendu aber-tzalearen sortzea Iparraldean.*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1994.

—, "Eugene Goyheneche, un militant basque dans les années 30", *RIEV*, 1 zkia, 79-160 orr.

—, "La prensa de Iparralde y la Guerra Civil", *Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil*. Tomo I. Manuel Tuñón de Lara (dir.), UPV, Bilbao, 1990.

—, "Las repercusiones políticas de la Guerra Civil en Iparralde", *La Guerra Civil en el País Vasco 50 años después*, Carmelo Garitaonandia eta José Luis de la Granja (ed.), UPV, Bilbo.

MALHERBE, Jean-Paul: "Aintzina ou la création du mouvement eskualerriste en Pays Basque français", *Bulletin du Musée Basque*, 1978, 56 zkia., 191-202 orr.

—, *Le nationalisme basque en France (1939-1976)*. Thèse pour l'obtention du doctorat de troisième cycle. Université de Sciences Sociales, Toulouse I, 1977.

SIRINELLI, Jean-François (dir): *Dictionnaire historique de la vie politique française au XXe siècle*, Puf, 1995.

Piarres Lafittek Aintzinan idatzitako artikulak

"Zertako", *Aintzina*, 1934ko urria.

"Le Balai", *Aintzina*, 1934ko urria.

Junior: "Deux sources de la crise. L'or et l'argent", *Aintzina*, 1934ko urria.

Triki- Traka: "Dirua Jainko", *Aintzina*, 1934ko urria.

S.B.: "Eskualzale, bai; Bainan, oroz lehen, herrizle", *Aintzina*, 1934ko urria.

Zotil: "Zuhurtzia", *Aintzina*, 1934ko urria.

Elgarkaria: "Syndicalisme Basque", *Aintzina*, 1934ko urria.

"Frantsesa eta Eskuara", *Aintzina*, 1934ko azaroa.

Triki-Traka: "Oro trompaturik", *Aintzina*, 1934ko azaroa.

"Begiraleak", *Aintzina*, 1934ko azaroa.

"Atzar Gaiten", *Aintzina*, 1934ko, abendua.

Aintzina: "Elections Senatoriales", *Aintzina*, 1934ko, abendua.

Junior: "Le poids et la valeur", *Aintzina*, 1934ko, abendua.

S.B.: "Auzitegien garbitzeko", *Aintzina*, 1934ko, abendua.

"Errailea eta Errana", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

A. L.: "Bederatzi haur heldu zaizko", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

Bettiri Uhartekoa: "Chakhurra", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

Léon Etoran: "Lana Gazteri", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

Lekukoa: "Pierre Amocain", *Aintzina*, 1935ko urtarrila.

"Lege Ustela", *Aintzina*, 1935ko otsaila.

"Nungo eskuara da ederrena", *Aintzina*, 1935ko otsaila.

Aintzina: "Bozak ondoan", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

N. A.: "Le Bloc Régionaliste", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

"Bathaio izenak", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

"Vive Pétain!", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

S. B.: "Jaun Aphezpiku berria", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

"Josta eskuaraz", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

Elgarkari: "Lisez-moi-ça", *Aintzina*, 1935ko martxoa.

"Herriko Gizonak", *Aintzina*, 1935ko apirila.

S.V.P.: "De la propriété", *Aintzina*, 1935ko apirila.

"Bathaio-izenak", *Aintzina*, 1935ko apirila.

"Mise au point", *Aintzina*, 1935ko apirila.

Begirale Batek: "Begiratu", *Aintzina*, 1935ko apirila.

"Zathozte!", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

Le Réaliste: "Comment s'y prendre", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

Triki-Traka: "Legearen indarra eta ahulezia", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

Maddalen: "Miss Euzkarie", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

I.M.: "A l'U.N.C.", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

Triki- Traka: "Iheslariak", *Aintzina*, 1935ko maiatza.

Triki-Traka: "Kazeta eta bozketa", *Aintzina*, 1935ko ekaina.

"Avis important aux amateurs des disques", *Aintzina*, 1935ko ekaina.

"Mahas-Mahas", *Aintzina*, 1935ko ekaina.

Battita: "Bravo les jeunes", *Aintzina*, 1935ko ekaina.

- Thomas Aguirre: "Esker ona eta kontzientzia", *Aintzina*, 1935ko ekaina.
- "Une Sémaine d'Etudes Basques a Saint Sébastian", *Aintzina*, 1935ko ekaina.
- J.E.: "Armi-armoa", *Aintzina*, 1935ko ekaina.
- R.V.: "Ça chauffe en Provence", *Aintzina*, 1935ko ekaina.
- Aintzina: "Itsas-Bazterrak Garbi", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- "Devoirs de vacances pour les Eskualerristes", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- Behingoa: "Errege eta Errepublika", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- A.R.: "La Race", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- "Heietatik Zerura", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- Félix Am: "Mépris ridicule", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- J. Etchebeste: "Palankaris", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- Mariaño: "Akizen bezala", *Aintzina*, 1935ko uztaila.
- "Euzkadi uber alles", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- Triki-Traka: "Ethiopia", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- L.B.: "Garizuma Berria", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- A.B.: "Terre Nouvelle", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- Ha-la-la: "L'Escaliers", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- Thun-Thun-orde: "Bide-berriak", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- Kasu-Bada: "Si j'étais un voleur", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- "Nahas-Mahas", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- B. Arroquy: "Pilotaz", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- R.V.: "Rebout eta Ricard", *Aintzina*, 1935ko abuztua.
- "Eskuara Herriko-Etchetan", *Aintzina*, 1935ko iraila.
- Triki-Traka: "Eskualdun kurutzea edo lauburua", *Aintzina*, 1935ko iraila.
- Lamina: "Pour faire aimer le Pays Basque a la Jeunesse", *Aintzina*, 1935ko iraila.
- Lichtafina: "Zerbitzari Jaunari Zitzikano bat", *Aintzina*, 1935ko iraila.
- A.R.: "Herri bazterrak ez fundi!", *Aintzina*, 1935ko iraila.
- Santsin: "Ez denetz nardagarri?", *Aintzina*, 1935ko urria.
- "Liburu berri bat", *Aintzina*, 1935ko urria.
- B.S.: "La logique des Laval et Cie", *Aintzina*, 1935ko urria.
- Mifasol: "Zonbat zirezte", *Aintzina*, 1935ko urria.
- "Réponse a M. Sorhuet!", *Aintzina*, 1935ko urria.
- "Pour l'Etude du Basque", *Aintzina*, 1935ko urria.
- "La fête des amis du basque à Tardets", *Aintzina*, 1935ko urria.

- Etcheberri: "Largo", *Aintzina*, 1935ko urria.
- "Arno-irakazleak", *Aintzina*, 1935ko urria.
- Triki-Traka: "Bide bakharra", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- "Stavisky-tarrak", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- Santsisn: "Bazinakitena", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- "Argal-argal", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- "Fraidearen Purgatorioa", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- "Gure Almanaka", *Aintzina*, 1935ko azaroa.
- Aintzina: "Hek eta Gu", *Aintzina*, 1935ko abendua.
- "Séances récréatives en Basque", *Aintzina*, 1935ko abendua.
- Aintzina: "Urthe on", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- "Distinctions nécessaires", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- Irakurlea: "Bertsonaaliak", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- Thun-Thun- orde: "La Chanson Basque a l'école", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- Pello Karkasa: "Eskuarazko jostelak", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- "Nahas-Mahas", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- "Laborarier. Oihanen alde", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- "Adichkideen berri. 'Eskual-Etchea", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- "Choses et autres", *Aintzina*, 1936ko urtarrila.
- Aintzina: "Parlons-net", *Aintzina*, 1936ko otsaila.
- Tthun-Thun-orde: "Orotarik", *Aintzina*, 1936ko otsaila.
- "Eskuarazko jostetak", *Aintzina*, 1936ko otsaila.
- "Kontzientzia eskasa gerla-bide", *Aintzina*, 1936ko martxoa.
- Thun-Thun-orde: "Ça et la ", *Aintzina*, 1936ko martxoa.
- Irakurlea: "La Democracia en Euzkadi", *Aintzina*, 1936ko martxoa.
- "A St.-Jean-de-Luz-Gure Etchea", *Aintzina*, 1936ko martxoa.
- "Guéthary", *Aintzina*, 1936ko martxoa.
- Aintzina: "Bozak ba, bainan gero?", *Aintzina*, 1936ko apirila.
- Etcheberry: "Konkorra", *Aintzina*, 1936ko apirila.
- L.G.: "Ez lokhar", *Aintzina*, 1936ko apirila.
- "Nahas-Mahas", *Aintzina*, 1936ko apirila.
- J.A.B.: "Musique et mouvements sociaux", *Aintzina*, 1936ko apirila.
- Bidezaina: "Gauden Erne", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- F. Hargaray: "Chez les agriculteurs. Tout n'est pas à faire", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

- Manech: "Geroari buruz ", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- Pseudo Thunthun: "Aire Chaharrak", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- "Beldurrik ez!", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- "Nouveau livre", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- "Notes sur les organisations agricoles", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- F. Hargaray: "Existantes", *Aintzina*, 1936ko maiatza.
- Junior: "Décentralisation et syndicalisme", *Aintzina*, 1936ko ekaina.
- Thun-Thun-orde: "Concours de Bertsolari", *Aintzina*, 1936ko ekaina.
- Laborari Gaztea: "Gaicho laboraria", *Aintzina*, 1936ko ekaina.
- Pettan: "Gaizki egilea, hoben gabea izanik ere, ez da gaizki egiterat utzi behar", *Aintzina*, 1936ko ekaina.
- Bierarte: "Hiru aburu", *Aintzina*, 1936ko uztaila.
- "Lutte fratricide", *Aintzina*, 1936ko uztaila.
- Manech: "A travers de revues", *Aintzina*, 1936ko uztaila.
- "Mugaz bertzaldeko berri", *Aintzina*, 1936ko abuztua.
- "Les deux tableaux", *Aintzina*, 1936ko abuztua.
- "Aita Sainduaren hitza", *Aintzina*, 1936ko iraila.
- "Doriot", *Aintzina*, 1936ko iraila.
- B.F.: "Berrichkak", *Aintzina*, 1936ko iraila.
- Begirale Bat: "Begiraleen Biltzarra", *Aintzina*, 1936ko buruila.
- P. L.: "Le Régionalisme", *Aintzina*, 1936ko urria.
- Irakurtzale Suharra: "Liburu berri. Bahnar deithu Salbaiak", *Aintzina*, 1936ko urria.
- Pattin: "Ibero eta buru-bero", *Aintzina*, 1936ko azaroa.
- "Berrichkak", *Aintzina*, 1936ko azaroa.
- A. B. Deuil: "Noel sur les tranchées basques", *Aintzina*, 1936ko abendoa.
- "Uhainen dantza", *Aintzina*, 1936ko abendoa.
- Begiak Idek: "Etchea sutan", *Aintzina*, 1936ko abendoa.
- "Liburu eta Agerkari", *Aintzina*, 1936ko abendoa.
- "Le Régionalisme a travers les idées et les faits". *Aintzina*, 1936ko abendoa.
- "Les Racines", *Aintzina*, 1937ko urtarrila.
- "Nouvelles diverses", *Aintzina*, 1937ko urtarrila.
- Demetrius: "Un chrétien ne saurait être unitariste", *Aintzina*, 1937ko otsaila.
- "Mgr. Gieure, Régionaliste", *Aintzina*, 1937ko apirila.
- "Lettre ouverte à Monsieur Alfonso Velarde, Gouverneur de Guipuzcoa (Un basque Français)", *Aintzina*, 1937ko apirila.

Ikusi-Mikusi: "Avis aux Unitaristes", *Aintzina*, 1937ko apirila.

"Les Membres et l'Estomac", *Aintzina*, 1937ko apirila.

"Guernica", *Aintzina*, 1937ko apirila.

"Girichtino zare!", *Aintzina*, 1937ko maiatza.

Aintzina: "Le Revenant", *Aintzina*, 1937ko iraila.

Allande: "Bi Alderdiak", *Aintzina*, 1937ko iraila.

J. Duhalde: "L'Exemple de la Navarre", *Aintzina*, 1937ko iraila.

Piarres: "Eskuindarren arteko batasun-eskasa", *Aintzina*, 1937ko iraila.



Piarres Lafitte jaunaren irudia, A. Irigoyenek egina.